


Osasunaren gaineko Eraginaren
Ebaluazioa berroneratzeko
bi esku-hartze egiteko Pasaiako badian

Evaluación del Impacto en la Salud
de dos intervenciones de regeneración
en la Bahía de Pasaia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Osasunaren gaineko Eraginaren Ebaluazioa berroneratzeko bi esku-hartze egiteko Pasaia badi

Evaluación del Impacto en la Salud
de dos intervenciones de regeneración
en la Bahía de Pasaia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:
[http://: www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac](http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac)

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la red *Bibliotekak* del Gobierno Vasco: [http://: www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac](http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac)

Proiektu hau finantzatzeko, ikerlan komisionatueterako Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren laguntza bat baliatu da (Erf. zk. 2011111051).

Este proyecto ha sido financiado por una ayuda para trabajos de investigación comisionada del Departamento de Salud del Gobierno Vasco (Nº Ref. 2011111051).

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2014ko iraila / 1ª, septiembre 2014

Ale kopurua / Tirada: 250 ale / 250 ejemplares

©

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Osasun Saila / Departamento de Salud

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Itzulpena / Traducción: Elixabete Agirre (Euskara / Euskera); Brian Webster (Ingelesa / Inglés)

Maketa / Maqueta: Mª Lourdes Beñarán - Miren Unzurrunzaga Schmitz

Inprimaketa / Impresión: Gráficas CEMS, S.L. - Navarra

L.G. / D.L.: SS 975-2014

Elena Serrano¹
 María Dolores Baixas²
 Mikel Basterrechea³
 Elena Aldasoro⁴
 Josu Losa¹
 M^a Dolores Martínez⁵
 Amaia Bacigalupe⁶
 José María Urkiola³
 Joseba Goikolea³
 Miren Maite Areizaga⁷
 Santiago Esnaola⁶
 Isabel Larrañaga³

- ¹ Bidasoako Osasun Publikoko Eskualde Zentroa. Osasun Publikoaren eta Adikzioen Gipuzkoako Zuzendariorde. Osasun Saila / Comarca de Salud Pública de Bidasoa. Subdirección de Salud Pública y Adicciones de Gipuzkoa. Departamento de Salud.
- ² Trintxerpe-San Pedroko Osasun Zentroa. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua / Centro de Salud de Trintxerpe-San Pedro. Osakidetza-Servicio Vasco de Salud.
- ³ Osasun Publikoaren eta Adikzioen Gipuzkoako Zuzendariorde. Osasun Saila / Subdirección de Salud Pública y Adicciones de Gipuzkoa. Departamento de Salud.
- ⁴ Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza. Osasun Saila / Dirección de Aseguramiento y Contratación Sanitaria. Departamento de Salud.
- ⁵ Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila / Dirección de Administración Ambiental. Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial.
- ⁶ Azterketa eta Ikerketa Sanitarioen Zerbitzua. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza. Osasun Saila / Servicio de Estudios e Investigación. Dirección Planificación, Ordenación y Evaluación Sanitaria. Departamento de Salud.
- ⁷ Bidebietako Osasun Zentroa. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua / Centro de Salud de Bidebieta. Osakidetza/ Servicio Vasco de Salud.

Esker onak / Agradecimientos

Eskerrak eman nahi dizkiegu galdeketa parte hartu duten guzti-guztiek beraien ekarpen baliotsuagatik; bereziki, Trintxerpeko jubilatuen elkartekoei, San Pedroko jubilatuen elkartekoei, Azkueneko emakumeen elkartekoei, Autoestima emakumeen elkartekoei eta Ekaitza eta Bóveda gazte-taldeetako boluntarioei. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiogu Uretamendi-Betolazaren eta Ingurabidearen Eraberritze Integralaren Planari buruzko Osasunaren gaineko Eraginaren Ebaluazioa egin duen lan-taldeari, haien lan aitzindariak OEE hau garatzeko izugarritzko laguntza eman digulako.

Agradecemos a todas las personas participantes en la consulta por su valiosa colaboración, de manera especial a la asociación de jubilados de Trintxerpe, la asociación de jubilados de San Pedro, la asociación de mujeres Azkuene, la asociación de mujeres Autoestima y a los voluntarios de los grupos de jóvenes Ekaitza y Bóveda. Agradecemos también al equipo de trabajo de la Evaluación del Impacto en la Salud del Plan de Reforma Integral de Uretamendi-Betolaza y Circunvalación, porque con su trabajo pionero nos han aportado gran ayuda para el desarrollo de esta EIS.

Aipamen iradokia / Cita sugerida

Serrano S, Baixas MD, Basterrechea M, Aldasoro E, Losa J, Martínez MD, Bacigalupe A, Urkiola JM, Goikolea J, Areizaga M, Esnaola S, Larrañaga I. Osasunaren gaineko Eraginaren Ebaluazioa berroneratzeko bi esku-hartze egiteko Pasaia badi / Evaluación del Impacto en la Salud, de dos intervenciones de regeneración en la Bahía de Pasaia. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila / Departamento de Salud del Gobierno Vasco; 2013.

Laburpena	Resumen	11
	Abstract	21
1. SARRERA	1. INTRODUCCIÓN	29
1.1. Osasunaren gaineko Eraginaren Ebaluazioaren justifikazioa	1.1. Justificación de la Evaluación del Impacto en la Salud	29
1.2. Zer da Osasunaren gaineko Eraginaren Ebaluazioa?	1.2. ¿Qué es la Evaluación del Impacto en la Salud?	30
1.3. OEEaren jatorria, esperientzia eta hura ezartzeko esparruak	1.3. Origen, experiencia y ámbitos de aplicación de la EIS	31
1.4. OEEak dakarren onura, berroneratzeko bi esku-hartze egiteko Pasaiaiko badian	1.4. Interés de la EIS de dos intervenciones de regeneración en la bahía de Pasaia	31
1.5. OEE proposamena, berroneratzeko bi esku-hartze egiteko Pasaiaiko badian	1.5. Propuesta de EIS de dos intervenciones de regeneración en la bahía de Pasaia	32
2. HELBURUAK	2. OBJETIVOS	35
2.1. Helburu orokorra	2.1. Objetivo general	35
2.2. Helburu zehatzak	2.2. Objetivos específicos	35
3. ESKU-HARTZEAK	3. LAS INTERVENCIONES	37
3.1. Arrain-lonja berria	3.1. La nueva lonja de pescado	37
3.2. La Herrera Iparralde/Mendebaldea (I/M)	3.2. La Herrera Norte/Oeste (N/O)	38
3.3. Hirigunearekiko interrelazioa	3.3. Interrelación con el casco urbano	41
4. METODOAK	4. MÉTODOS	43
4.1. OEE metodologia	4.1. Metodología EIS	43
4.2. Arrain-lonja berriaren eta La Herrera I/M-aren OEE	4.2. EIS de la nueva lonja de pescado y La Herrera N/O	44
4.2.1. Esku-hartzeen baheketa	4.2.1. Cribado de las intervenciones	44
4.2.2. OEEaren diseinua eta planifikazioa	4.2.2. Diseño y planificación de la EIS	45
4.2.3. Helburuak, populazioa eta ebaluazioaldia	4.2.3. Objetivos, población y periodo de evaluación	45
4.2.4. Arrain-lonja berriaren eta LaHerrera I/M-aren, ebaluazioa	4.2.4. Evaluación de la nueva lonja de pescado y La Herrera N/O	46
4.2.4.1. Esku-hartzeen analisisa	4.2.4.1. Análisis de las intervenciones	46
4.2.4.2. Eragindako populazioaren ezaugarritzea	4.2.4.2. Caracterización de la población afectada	46
4.2.4.3. Azterketa bibliografikoa	4.2.4.3. Revisión de la bibliografía	48

4.2.4.4. Metodo kualitatibo bidezko datu-bilketa	4.2.4.4. Recogida de datos con metodología cualitativa	49
4.2.4.5. Metodo kuantitatibo bidezko datu-bilketa	4.2.4.5. Recogida de datos con metodología cuantitativa	50
4.2.4.6. Erasanen integrazioa	4.2.4.6. Integración de los impactos	51
5. KOMUNITATEAREN EZAUGARRITZEA	5. CARACTERIZACIÓN DE LA COMUNIDAD	53
5.1. Deskripzio geografikoa	5.1. Descripción geográfica	53
5.2. Populazioa	5.2. Población	54
5.3. Ezaugarri sozioekonomikoak	5.3. Características socioeconómicas	56
5.4. Ekipamenduak eta zerbitzuak	5.4. Equipamientos y servicios	58
5.5. Ingurune eraikia	5.5. Medio construido	60
5.6. Ingurumenaren kalitatea	5.6. Calidad medioambiental	61
5.7. Populazioaren osasun-egoera	5.7. Estado de salud de la población	62
6. AZTERKETA BIBLIOGRAFIKOA	6. REVISIÓN BIBLIOGRÁFICA	69
6.1. Hiri-narriadura	6.1. Deterioro urbano	69
6.2. Ingurune osasungarriak eta berroneratzea	6.2. Entornos saludables y regeneración	70
6.3. Hiriko berdeguneak	6.3. Espacios verdes urbanos	71
6.4. Zoruaren erabilera mistoa	6.4. Uso mixto del suelo	72
6.5. Irisgarritasuna eta garraioa	6.5. Accesibilidad y transporte	74
6.6. Segurtasun-pertzepzioa	6.6. Percepción de seguridad	76
6.7. Paseagarritasuna	6.7. Paseabilidad	76
6.8. Enplegua	6.8. Empleo	78
6.9. Kapital soziala	6.9. Capital social	79
7. AZTERKETA KUALITATIBOA	7. ESTUDIO CUALITATIVO	85
7.1. Testuinguru soziala	7.1. El contexto social	85
7.2. Osasunari buruzko diskurtsoak	7.2. Los discursos sobre la salud	85
7.3. Lonjako eta La Herrerako I/M-ko esku-hartzeen osasun-eraginak	7.3. Impactos en la salud de las intervenciones de la Lonja y La Herrera N/O	86
7.4. Bertako biztanleen eskariak	7.4. Demandas de la población local	87
7.5. Gizarte- eta genero-dimentsioa	7.5. La dimensión social y de género	87
8. AZTERKETA KUANTITATIBOA	8. ESTUDIO CUANTITATIVO	93
8.1. Paseagarritasuna eta ariketa fisikoa	8.1. Paseabilidad y ejercicio físico	93
8.2. Kohesio soziala	8.2. Cohesión social	94
8.3. Irisgarritasuna eta mugikortasuna	8.3. Accesibilidad y movilidad	96
9. EMAITZEN SINTESIA	9. SÍNTESIS DE RESULTADOS	99
9.1. Arrain-lonja berriari loturiko eraginak	9.1. Impactos asociados a la nueva lonja de pescado	100
9.2. La Herrera I/M-ri loturiko eraginak	9.2. Impactos asociados a La Herrera N/O	101

10. GOMENDIOAK	10. RECOMENDACIONES	103
10.1. Badiaren berroneratze-prozesurako gomendioak	10.1. Recomendaciones para el proceso de regeneración de la bahía	103
10.2. Esku-hartzei loturiko aukera berrietarako gomendioak	10.2. Recomendaciones para las nuevas oportunidades ligadas a las intervenciones	104
10.3. La Herrera I/ M-rako gomendioak	10.3. Recomendaciones para La Herrera N/O	103
10.4. Arrain-lonja berrirako gomendioak	10.4. Recomendaciones para la nueva lonja de pescado	106
10.5. Sortzen diren atsedelekuetarako gomendioak	10.5. Recomendaciones para los nuevos espacios de esparcimiento que se crean	106
11. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA	11. EVALUACIÓN Y SEGUIMIENTO	111
11.1. Prozesuaren ebaluazioa	11.1. Evaluación del proceso	111
11.2. Eraginen ebaluazioa	11.2. Evaluación del impacto	114
11.3. Eraitzen ebaluazioa eta jarraipena	11.3. Evaluación de los resultados y seguimiento	114
ERANSKINAK	ANEXOS	117
I. eranskina	Anexo I.	119
II. eranskina	Anexo II.	122
III. eranskina	Anexo III.	128
IV. eranskina	Anexo IV.	134
BIBLIOGRAFIA	BIBLIOGRAFÍA	141

1. AURREKARIAK ETA HELBURUAK

OMEk ohartarazi duenaren arabera, gaixotasun kronikoek duten zama globala hainbestekoa omen, ezen heriotza guztien %75 izango baita 2020an. Osasun-sistemek erronka horri erantzun beharra daukate, epe motz nahiz luzera antolatutako helburuak jarrita. Epe laburrean, egokiak dira gaixotasun kronikoak aurreikusi, atzeman eta tratatzeko ekimenak; epe luzerako, berriz, osasun-sistematik haratagoko ekimenak behar dira, hau da, osasunaren gizarte-determinatzaileen gaineko jarduerak; eta horrek osasun mailakoak ez diren esku-hartzeek osasunean duten eragina ere kontuan hartu beharra dakar.

Eskura dugun ezagutzak erakusten duenez, pertsonen osasunak beraien egoera sozioekonomikoarekin du zerikusia, testuinguruko beste faktore batzuek gain, hala nola, hiriaren diseinu eta kalitatea, oinarritzko baliabideak eta zerbitzuak edukitzea eta abar. Hiria berroneratzeko proiektuek, beraz, zeregin erabakigarria izan dezakete osasunean. OEE metodologia erabiltzen da, ikuspegi integratzaile hori duela, proiektu publiko batek osasunean duen eragina balioesteko; eta hori oinarri izanik hartuko dira erabakiak.

Pasaia badi berroneratzeko 2010eko Masterplanak portuko egungo zoruaren 75 Ha, gutxi gorabehera, berrantolatzea proposatzen zuen. Denbora aurrera joan ahala, eta 2011ko testuinguru ekonomiko eta politikoa, hasieran azaldutako bi esku-hartzek, soilik (arrain-lonja berria eta La Herrera Iparralde/Mendebalde (I/M)-aren berrantolaketa), zeukaten nahikoa zehaztasun, epe laburrean/ertainean egin ahal izateko.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailean, interesgarri irizten genion bi esku-hartze horietan (Lonja eta Herrera I/M) Osasunaren gaineko Erasanaren Ebaluazioa (OEE) aplikatzea, inguruneke populazioaren osasunean bi proiektuek nola eragin zezaketen balioesteko eta gomendioak emateko berroneratze-prozesu horietan, osasun publikoarentzat eraginkorrak lirakeen erabakiak hartzen laguntze aldera.

1. ANTECEDENTES Y OBJETIVOS

La OMS ha alertado que la carga global de las enfermedades crónicas es tal que en 2020 éstas supondrán el 75% de la mortalidad total. Los sistemas sanitarios deben responder a este reto con objetivos planteados tanto a corto como a largo plazo. Para el corto plazo son apropiadas las iniciativas dirigidas a prevenir, detectar y tratar las enfermedades crónicas, pero a largo plazo se necesitan iniciativas que vayan más allá del sistema sanitario, es decir son necesarias actuaciones sobre los determinantes sociales de la salud, lo que exige tener en cuenta el efecto sobre la salud de intervenciones no sanitarias.

El conocimiento disponible muestra que la salud de las personas depende de sus condiciones socioeconómicas, además de otros factores contextuales como el diseño y calidad urbana, el acceso a recursos y servicios básicos, etc. Los proyectos de regeneración urbana pueden, por tanto, ejercer un papel determinante en la salud. La metodología EIS, dotada de esta perspectiva integradora, se emplea para valorar los efectos de un proyecto público en la salud y, en base a ello, contribuir a la toma de decisiones.

El Masterplan 2010 para la regeneración de la bahía de Pasaia proponía la reordenación de las aproximadamente 75 Ha de suelo portuario actual. Con el transcurso del tiempo y en el contexto económico y político de 2011, únicamente dos de las intervenciones inicialmente planteadas, la nueva lonja de pescado y la reordenación de La Herrera Norte/Oeste (N/O), contaban con la concreción suficiente como para ejecutarse a corto-medio plazo.

Desde el Departamento de Salud del Gobierno Vasco se consideró de interés la aplicación de una Evaluación de Impacto en Salud (EIS) de estas dos intervenciones (Lonja y Herrera N/O), con objeto de valorar la repercusión de ambos proyectos en la salud de la población del entorno y emitir recomendaciones a fin de favorecer decisiones eficaces en términos de salud pública en dicho proceso de regeneración.

2. METODOAK

OEE hori aurrera eramateko lan-taldeak Osasun Publikoko Gipuzkoako Zuzendariorde eta eduki zuen buru, eta kideak, berriz, Osasun Saileko profesionalak (Osasun Saileko Gipuzkoako Zuzendariorde eta Azterketa eta Ikerketa Sanitarioen Zerbitzua), Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzako profesionalak eta eremu horretako profesional sanitarioak izan ziren (San Pedro-Trintxerpeko eta Bidebietako Osasun-zentroetako medikuak eta herriko farmazialaria).

Lan hori garatzeko, OEE metodologiako betiko etapak aplikatu ziren: baheketak; diseinua eta planifikazioa; ebaluazioa, bere horretan; eta erasaneia eta gomendioei buruzko txostena.

Horrela, baheketan, esku-hartzeek osasunean zer-nolako eraginak izan zitzaizkien zenbatetsi zen lehen hurbilketa batean. Eta, gainera, ziurgabetasunezko hainbat eremu eta hobetzekoak izan zitezkeen beste zenbaitzuk identifikatu ziren. Ondorioz, zilegi jo zen OEE bat aplikatzea bere osotasunean.

Diseinu eta planifikazioaren fasean, OEE en erreferentziatzat hartu beharreko terminoak ezarri ziren: helburuak, metodoak, sakontasuna, espazio- eta denbora-mugak eta beharrezko baliabideak. Proiektuaren erakunde sustatzaile diren Portuko Agintaritzarekin eta Pasaia Udalarekin izan beharreko informazio-fluxuei dagokienez, bata bestearen atzeko bilerak egitea erabaki zen, informazioa trukatu eta ebaluazioaren nondik norakoen berri emateko.

Ebaluazio faserako, berriz, esku-hartzeak ebaluatu, komunitatea ezaugarritu, informazioa bildu eta erasanak aztertu eta lehenetsi ziren. Ezaugarritzea egiteko, adierazle soziodemografikoak eta populazioaren osasun-egora aztertu ziren; halaber, herritarrak bizi direneko ingurumenaren eta hiriaren kalitatea ere aztertu ziren. Informazioa biltzeko, bibliografia-azterketa egin zen eta azterlan misto batekin osatu: zati bat, kualitatiboa, eta, ondoren, bestea, kuantitatiboa.

Literatura azterketarako, batez ere, antzeko esku-hartzeek osasunaren gainean izandako eragina, osasunaren determinatzaileen arteko erlazioa eta testuinguru desberdinetako emaitza zehatzak ikertu zituzten argitalpenak kontsultatu ziren. Azterketa kualitatiboa egiteko, funtsezko solaskide batzuei egindako 18 elkarrizketa sakonetan eta gizatalde esanguratsuetako ordekariz osatutako (adinekoak, emakumeak eta gazteak) 5 eztabaida-taldetan oinarritu ginen. Azterketa

2. MÉTODOS

El equipo de trabajo encargado de llevar a cabo esta EIS, estuvo liderado por la Subdirección de Salud Pública de Gipuzkoa y compuesto por profesionales del Departamento de Salud (Subdirección de Salud Pública de Gipuzkoa y del Servicio de Estudios e Investigación Sanitaria) de la Dirección de Calidad Ambiental del Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial y por profesionales sanitarios de la zona (médicas del Centro de Salud de San Pedro-Trintxerpe y del Centro de Salud de Bidebieta y farmacéutico local).

Para desarrollar este trabajo se aplicaron las etapas clásicas de la metodología EIS: cribado, diseño y planificación, evaluación propiamente dicha y redacción del informe sobre impactos y recomendaciones.

En el cribado se estimaron, en una primera aproximación, los posibles impactos de las intervenciones en la salud. Se identificaron, además, una serie de áreas de incertidumbre y otras de posible mejora. En consecuencia, se estimó procedente la aplicación de una EIS en toda su extensión.

En la fase de diseño y planificación, se establecieron los términos de referencia de la EIS: objetivos, métodos, profundidad, límites espacio-temporales y recursos necesarios. En cuanto a los flujos de información con las entidades promotoras de los proyectos, la Autoridad Portuaria y el Ayuntamiento de Pasaia, se optó por mantener reuniones sucesivas en las que intercambiar información y mantenerles al corriente de la evaluación.

Para la evaluación se procedió al análisis de las intervenciones, la caracterización de la comunidad, la recopilación de información y el análisis y priorización de los impactos. La caracterización incluyó el estudio de los indicadores sociodemográficos y del estado de salud de la población, así como de la calidad medioambiental y urbana del entorno en que ésta vive. Para la recopilación de información se procedió a una revisión bibliográfica que se completó con un estudio mixto, con una parte cualitativa y una posterior cuantitativa.

En la revisión de la literatura se consultaron aquellas publicaciones que habían estudiado el efecto de intervenciones similares sobre la salud, así como la relación entre los determinantes de la salud y resultados concretos en contextos diferentes. El estudio cualitativo se basó en 18 entrevistas en profundidad a interlocutores clave y 5 grupos de discusión integrados por representantes de colectivos relevantes (personas mayores, mujeres y jóvenes). Para el estudio cuantitativo se realizó una en-

kuantitatiborako, berriz, inkesta bat egin zitzairen bertakoei telefonoz, horretarako kuota bidezko laginketa diseinatuta, adin, sexu, maila sozioekonomiko eta bizilekuaren arabera.

Aurreko faseetan jasotako informaziotik abiatuta, analisi-prozesu bati ekin zitzaion, sintesi-matrize bat prestatuta, eta horrekin egin zen, ebaluatutako bi eskuhartzeetarako, bakoitzari zegokion eraginaren diagrama. Deskripzio grafiko horiei esker identifikatu ahal izan ziren esku-hartzeen eta populazioaren osasunaren arteko fluxuak, eta handik, erasanak lehenetsi.

Behin eraginak identifikatu eta haztatuta, negatiboak txikiagotu eta positiboak indartzeko aldera, hainbat gomendio planteatu zaizkie Pasaiaiko Udalarari eta Portuko Agintaritzari, proiektuen sustatzaile diren aldetik. Ebaluazioaren emaitzak eta emandako gomendioak jakinaraziko zaizkie, halaber, prozesuan inplikaturik dauden herriko elkarte eta plataformei ere. Gomendioak onartu edo ez erabakitzeko azken hitza proiektuaren sustatzaileek daukate. Gomendioak aplikatu ondoren, jarraipena eta ebaluazioa egiteko fase bat aurreikusi da, herritarren ongizatean eta osasun-zer-nolako eragina izan duten ikusteko.

3. AURKIKUNTZAK

3.1. Komunitatearen ezaugarritzea

Xede-populazioaren adin-egitura (20.862 biztanle ziren 2011an, Trintxerpe, San Pedro, Herrera eta Bidebieta-La Paz auzoak batuta) Gipuzkoa osokoa baino zaharkituago dago. Alde sozioekonomikotik begiratuta, berriz, komunitate horrek langabezi portzentaia handiagoa, eskolatzeko maila txikiagoa eta diru-sarrera maila ere txikiagoa dauka, Gipuzkoako batez bestekoa baino.

Ingurumenari dagokionez, azken aldian hobera egin badu ere, eremu horretako giro-zarataren mailak onartutako mugen gainetik daude egunez nahiz gauez. Halaber, aire-kutsaduraren uean uneko gertakari batzuk ere erregistratu dira, denbora motzekoak, baina partikula esekien maila handiekin. Gehienetan ipar-mendebaldeko haizea izaten denez, gutxiago eragiten dute Trintxerpen eta San Pedron. Populazio handiko hiri-ingurunea da, atsedenera eta berdegune gutxi duena Gipuzkoako hiri-eremuen batez bestekoarekin alderatuz, eta etxebizitza dentsitate askoz handiagoa daukana.

Osasun-egoerari dagokionez, ikertu den populazioak Gipuzkoa osokoari dagokiona baino heriotza-tasa han-

cuesta telefónica a residentes de la zona, para lo que se diseñó un muestreo por cuotas, según edad, sexo, nivel socioeconómico y lugar de residencia.

A partir de la información obtenida en las fases anteriores, se abordó un proceso de análisis, confeccionándose una matriz de síntesis a partir de la que se construyó, para cada una de las dos intervenciones evaluadas, su correspondiente diagrama de impactos. Estas descripciones gráficas permitieron identificar los flujos de relación entre las intervenciones y la salud de la población y, a partir de ello, priorizar los impactos.

Identificados y ponderados los impactos, con objeto de reducir los efectos negativos y potenciar los positivos, se han planteado una serie de recomendaciones dirigidas al Ayuntamiento de Pasaia y a la Autoridad Portuaria, en tanto que promotores de los proyectos. Los resultados de la evaluación y las recomendaciones emitidas se darán a conocer, asimismo, a las asociaciones y plataforma ciudadanas involucradas en el proceso. La decisión final sobre la aceptación de las recomendaciones queda en manos de los promotores de los proyectos. Se prevé una fase posterior de seguimiento y evaluación de la aplicación de las recomendaciones y de los efectos de las mismas en el bienestar y salud de la población.

3. HALLAZGOS

3.1. Caracterización de la comunidad

La estructura de edad de la población diana (20.862 habitantes que sumaban los barrios de Trintxerpe, San Pedro, Herrera y Bidebieta-La Paz en 2011) está más envejecida que la del conjunto de Gipuzkoa. Socioeconómicamente, se trata de una comunidad con mayor proporción de desempleo, menor nivel de instrucción y menor nivel de ingresos que la media de Gipuzkoa.

Medioambientalmente, se trata de una zona que, a pesar de haber mejorado en los últimos tiempos, registra niveles de ruido ambiental por encima de los límites admisibles, tanto en periodo diurno como nocturno. Se registran, asimismo, episodios puntuales de contaminación del aire, de corta duración pero con elevados niveles de partículas en suspensión que, como consecuencia de los vientos dominantes del NO, afectan menos a Trintxerpe y San Pedro. Constituye un medio urbano densamente poblado, con una superficie de zonas de esparcimiento y espacios verdes muy inferior a la media de las áreas urbanas de Gipuzkoa, y una densidad de vivienda muy superior.

En cuanto al estado de salud, la población a estudio muestra una mayor tasa de mortalidad que la correspon-

diagoa erakusten du. Gizonezkoetan, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoak (BGBK), tumore gaiztoek eta biriketako minbiziak eragindako heriotza gehiago erregistratu da, eta emakumezkoetan, koloneko minbiziak eragindakoa da gehiengoa. Erikortasun handiagoa ikusten da, halaber, eta minbizi intzidentzia handiagoan gauzatzen da, eta gaixotasun kronikoen prebalentzia ere handiagoa da: besteak beste, BGBK, hipertentsioa eta buruko arazoak (antsietatea/depresioa). Osasun-inekstaren 1997ko, 2002ko eta 2007ko argitalpenetako datuak aintzat hartuta, ikertu den populazioak ohitura gutxiago du ariketa fisikoa egiteko, eta tabakismoa eta obesitatearen proportzioa handiagoa da haietan, Gipuzkoako batez bestekoan baino.

3.2. Literaturaren azterketa

Arrain-lonja berria eta La Herrera I/M berrantolatze prozesua, hiri mailako berroneratze-ekimenak diren aldetik, osasunaren zenbait determinatzailearen gain eragiten dute. Dokumentuetan badago ebidentziarik azaltzen duenik nola eragiten dien determinatzaile horiei berroneratze esku-hartzeek, eta nola erasaten duen horrek osasunean.

Eskura dagoen ebidentzia zientifikoa

Ebidentziak azaltzen duenez, hiri-ingurunea narriatutako espaziotzat hautematea autoestimu txikiagoarekin eta osasun fisiko eta emozional txarragoarekin lotzen da; eta horrek jarduera fisikorik ez egitea, dieta-kalitate txarragoa eta obesitatearen prebalentzia dakartza.

Literaturak azaltzen duenaren arabera, bizitokiaren inguruko hainbat atributu negatibo, besteak beste, zarata, berdegunerik eza, segurtasun falta hautematea eta herriko instalazioetara ezin joana, buru-osasun okerragoa izatearekin lotzen da. Giro-zarata, berriz, izaera sumintzearekin, loaren nahasmenduekin, estresarekin, hipertentsioarekin eta bihotzeko gaixotasunekin lotu izan da. Zirkulazio-zarataren eraginpean modu kronikoan egoitea, zenbait ikerketen arabera, gaixotasun koronarioak izateko arriskua handiagotzearekin lotzen da eta, haurretan, garapen kognitiboko arazoekin, ulermen- eta arreta-arazoekin eta ikasketetan errendimendu eskasagoa izatearekin. Atmosferako kutsadura, bestalde, bihotz-hodietako gaixotasunekin, minbiziarekin eta diabetesak eta beste kausa batzuek eragindako heriotzarekin lotzen da; gainera, modu negatiboan eragiten dio biriken funtzionamenduari eta BGBK areagotu ere egin dezake.

Beste hauek, berriz, osasunerako eragin positiboekin eta ongizatearekin, jarduera fisikoaren tasa altuagoekin eta komunitate-sena garatzearekin lotzen dira: inguru

diente al conjunto de Gipuzkoa. En hombres se registra una mayor mortalidad por enfermedad pulmonar obstructiva crónica (EPOC) tumores malignos y cáncer de pulmón, y en mujeres por cáncer de colon. Se observa, además, una mayor morbilidad que se concreta en una mayor incidencia de cáncer y una mayor prevalencia de enfermedades crónicas como EPOC, hipertensión y problemas mentales (ansiedad/depresión). En base a los datos de la encuesta de salud en sus ediciones 1992, 2002 y 2007, la población estudiada presentaba menor hábito de ejercicio físico, mayor tabaquismo y mayor proporción de obesidad que la media de Gipuzkoa.

3.2. Revisión de la literatura

La nueva lonja de pescado y el proceso de reordenación de La Herrera N/O, como iniciativas de regeneración urbana, repercuten sobre una serie de determinantes de la salud. Se cuenta con evidencia documentada del modo en que estos determinantes resultan afectados por intervenciones de regeneración y de la manera en que ello repercute a la salud.

Evidencia científica disponible

La evidencia señala que la percepción del medio urbano como un espacio deteriorado se asocia con una menor autoestima, peor salud física y emocional, que deriva en mayor inactividad física, peor calidad de la dieta y mayor prevalencia de obesidad.

La literatura describe que una serie de atributos negativos del entorno de residencia, tales como ruido, falta de espacios verdes, percepción de inseguridad y falta de acceso a las instalaciones de la comunidad, se asocia con una peor salud mental. Asimismo, el ruido ambiental se ha asociado con irritación del carácter, trastornos del sueño, stress, hipertensión y enfermedades cardíacas. Diversos estudios asocian la exposición crónica al ruido de tráfico con un mayor riesgo de enfermedades coronarias y, en los niños/as, a problemas en el desarrollo cognitivo, de comprensión, atención y menor rendimiento en el aprendizaje. La contaminación atmosférica se relaciona con enfermedades cardiovasculares, cáncer, mortalidad por diabetes y por otras causas, afecta negativamente a la función pulmonar y puede exacerbar la EPOC.

Entornos atractivos y bien cuidados, bien iluminados, senderos peatonales, el transporte público próximo y frecuente y la conectividad de las calles que contribu-

erakargarri eta ongi zainduak eta nahiko argirekin; oinezkoentzako bideak; garraio publikoa, gertu eta maiz; eta bertakoen arteko harreman informaletan lagun dezaketenen kalearteko konektibitatea. Dokumentu asko eta asko dago azaltzen duena ohiko jardura fisikoak bihotz-hodietako gaixotasunak eta hainbat minbizi mota izateko arriskua gutxiagotzen duela, II motako diabetesari aurre hartzen diola, gihar eta hezurretako osasuna hobetzen duela, pisua kontrolatzen laguntzen duela eta depresioaren sintomak arintzen dituela. Orobat, gehiegizko pisuari aurre egitean, adinekoen mugikortasuna hobetu egiten da eta erorikoak izateko arriskutik babesten dira.

Txukun edukitako berdeguneak izatea osasun fisiko eta mental hobea edukitzearekin lotzen da, paseo gehiago egitearekin, garraio aktiboarekin eta pertsonarteko elkarrekintza handiagoarekin; era berean, horrek kohesio sozial handiagoa dakar berekin. Parke baten estetika, zuhaitzak egotea, eraikin erakargarriak, inguru naturalak, instalazioen ekipamendu eta mantentze-egoera onak faktore garrantzitsutzat aipatzen dira, literaturan, leku bat erabilia izateko, segurtasun handiagoa hautematearekin omen dute zerikusia eta.

Aisialdirako, bizitzeko eta merkataritzarako erabiltzeko lekuen espazio-banaketa eragin egiten du eguneroko ohituretan. Zoruaren erabilera mistoa ohitura osasungarriagoak izatearekin lotzen da. Askotariko zerbitzuak oinezkoen iristeko moduko distantziara egoteak ere garraio aktiboa sustatzen du eta sozializazioa bultzatzen, jardura fisiko gehiago egitea eta gizarte-kohesio handiagoa eragiten baititu. Degradatutako hiri-eremuetan, osasunerako irabazi handiagoak ekartzeko estrategia-tzat deskribatu izan da zoruaren erabilera mistoa sustatzea, leku berria hartu beharrean; batzuetan, kostu ekonomikoak igotzea badakar ere.

Kaleen arteko konektibitatea hobetzeak zerbitzuetara heltzea errazten du, eta horrek banakoaren eta gizartearen bizi-kalitatea hobetzen eta bakartasuna gutxitzen lagun dezake. Zauritzeko arriskua, batez ere oinez ibiltzen diren haurretan, asko handitzen da bai zirkulazio-bolumenarekin, bai 40 km/h baino handiagoko abiadurarekin, eta bai espaloian aparkatutako autoen dentsitate handiarekin.

Hiri-eremu baten irisgarritasunaz ari garenean –bertakoek azpiegituretara eta zerbitzuetara iristeko erraztasuna edukitzea, alegia–, garraio aktiborako eta kolektiborako aukera edukitzeaz ari gara, eta kaleen artean konektibitate egokia izateaz. Garraio publikoa abiatzen den eta iristen den tokietan bidegorriak eta oinezkoentzako bideak jartzea (txirrinduak aparkatzeko

yen al contacto informal entre los residentes, se relacionan con un impacto positivo en la salud y el bienestar, con tasas más altas de actividad física y con el desarrollo del sentido de comunidad. Está ampliamente documentado que la actividad física regular reduce el riesgo de enfermedades cardiovasculares, de algunos tipos de cáncer y previene la diabetes tipo 2, mejora la salud músculo-esquelética, contribuye al control del peso y reduce los síntomas de la depresión. Además, al combatir el sobrepeso, mejora la movilidad de las personas de más edad y protege del riesgo de caídas.

La presencia de espacios verdes bien mantenidos se asocia con una mejor salud física y mental, con niveles más altos de paseo y transporte activo y con una mayor interacción entre las personas, que a su vez se traduce en una mayor cohesión social. La estética de un parque, la presencia de árboles, edificios atractivos, entornos naturales, el equipamiento y el buen mantenimiento de las instalaciones son referidos en la literatura como factores que condicionan que este espacio sea usado, por estar relacionados con una percepción de mayor seguridad.

La distribución espacial de los usos recreativos, los residenciales y los comerciales influye en los hábitos de vida cotidiana. El uso mixto del suelo se asocia con hábitos más saludables. La disposición de servicios múltiples a una distancia que permite el desplazamiento caminando, incentiva el transporte activo y potencia la socialización, promoviendo una mayor actividad física y una mayor cohesión social. Promover el uso mixto del suelo en áreas urbanas degradadas, en lugar de ocupar nuevo suelo, se ha descrito como una estrategia que aporta mayores ganancias en salud, aunque a veces suponga un incremento de costes económicos.

La mejora de la conectividad de los viales facilita el acceso a los servicios, lo que puede mejorar la calidad de vida individual y social, y reducir el aislamiento. El riesgo de lesiones, especialmente para los niños/as peatones, aumenta con el volumen de tráfico, la velocidad de circulación a más de 40 km/h y una alta densidad de coches aparcados en las aceras.

La accesibilidad de un área urbana, entendida como la facilidad con que sus residentes pueden desplazarse a las infraestructuras y servicios, hace referencia a las oportunidades de transporte activo, de transporte colectivo y a la conectividad de los viales. La provisión de carriles bici y senderos peatonales que se acerquen a los lugares de partida y llegada del transporte público, dotados de

azpiegiturez hornituak) populazioaren jarduera fisiko maila igotzearekin lotzen da. Aukeretara eta zerbitzuetara errazago iristeak banakoaren eta gizartearen bizikaltatea hobetu dezake. Orobat, haurrak eta adinekoak direnean batik bat, gizarte-garapeneko aukerak edukitzeak eta auzolanean aritzeak on egiten dio haien ongizate eta bizi-kaltateari.

Aukerak edukitzeak enplegua edukitzeko abagunea izatea ere esan nahi du. Enplegua osasunaren gizarte-determinatzaile oso esanguratsua da. Oro har, hainbat lan-jardunetan aritzea arriskutsua bada ere, osasunerako irabazi bat da lana edukitzea ez edukitzearen aldean. Enplegua ugaritzea, batez ere kalitatezkoa bada, populazioaren osasun-egoera hobetzearekin lotzen da, eta heriotza-tasa gutxitzearekin eta buruko osasun hobe izatearekin.

3.3. Azterketa kualitatiboa

Ikerketan parte hartu duten solaskideek arrain-lonja berriaz, La Herrera I/M berrantolatze prozesuaz eta horiek beraien bizi-kaltatean eta osasunean izan dezaketen eraginaz duten pertzepzioak lotura dauka eremu horretako testuinguru historiko, sozial eta politikoarekin. Nabarmen geratzen da autoestimu sozialak okerrera egiten duela eta nolabaiteko mesfidantza dagoela eremu hori suspertzeko aukeraren aurrean, halabeharrez egora txarrean dagoen hiri-ingurune batean, gune narriatuekin, eta segurtasun-falta sumatzen dutela. Halaber, berdegunerik, atsedenekurik, oinezkoentzako biderik eta aparkatzeko lekurik ez edukitzea salatzen dute. Berroneratze proiektuei buruzko informazioirik eza aipatzen da, eta garbi ikusten da instituzioekiko daukaten etsipena, ez dutelako elkarren arteko akordirik lortzen, berroneratzeko proiektuak eta promesak gauzatzea ahalbidetzeko. Gainera, halako gatazka-egoera bat ere hautematen da herritarren / Portuko Agintaritzaren / Pasaia Udalaren artean.

Partehartze prozesuan, hainbat balioespen azaleratzen dira proiektu bakoitzarekiko. Lonja berriaren eragina, oro har, modu positiboan ikusten bada ere (hiri-kaltatea hobetzea, atsedenekuak ugaritzea, etab.) La Herrera I/M ekimenarekin, proiektuekiko halako sinesgaitasun bat adierazten da eta epe motzean hobetzeko itxaropen gutxi. Berroneratze-prozesuaren ikuskera aldatu egiten da bizilekuaren arabera. Ikuspegi ezkorragoa nabaritzen da Trintxerpeko biztanleengan, eta horrek adore kolektiboan eragiten du.

Alor hauek aipatzen dira eragingarritzat: hiriaren narriadura, paseatzeko toki gutxi izatea, zerbitzuetara iristeko zailtasuna, atsedeneku eta jendarterako leku gutxi,

infraestructura para el aparcamiento de bicis, se asocian con un aumento de los niveles de actividad física de la población. Un mayor acceso a oportunidades y servicios puede mejorar la calidad de vida individual y social, y reducir el aislamiento. Además, especialmente en el caso de niños y de personas mayores, la accesibilidad a oportunidades de desarrollo social y participación comunitaria, contribuyen a su bienestar y calidad de vida.

El acceso a oportunidades hace referencia también a las posibilidades de empleo. El empleo es un determinante social de la salud muy relevante. En general, a pesar de los riesgos que el desempeño de muchas de las tareas laborales entraña, tener un empleo supone una ganancia en salud frente a no tenerlo. El aumento del empleo, especialmente si es de calidad, se relaciona con una mejor salud de la población, con la reducción de la tasa de mortalidad y una mejor salud mental.

3.3. Estudio Cualitativo

La percepción de los interlocutores participantes en el estudio sobre la nueva lonja de pescado, el proceso de reordenación de La Herrera N/O, y sus efectos en la calidad de vida y en la salud, aparece ligada al contexto histórico y social del área. Se hace patente un deterioro de la autoestima social y una cierta desconfianza sobre la posible reactivación de la zona, en un medio urbano que se valora insuficientemente mantenido, con algunas áreas deterioradas que se perciben inseguras. Asimismo, acusan carencia de zonas verdes, áreas de esparcimiento, vías peatonales y de espacio para el aparcamiento. Se refiere falta de información sobre los proyectos de regeneración y es manifiesto un desencanto para con las instituciones, por no alcanzar acuerdos que permitan materializar los proyectos y promesas de regeneración. Se percibe, además, una situación de confrontación entre población / Autoridad Portuaria / Ayuntamiento de Pasaia.

En el proceso participativo afloran valoraciones distintas para cada proyecto. Mientras el efecto de la nueva lonja se aprecia, en general, como positivo (mejora de la calidad urbana, aumento de zonas de esparcimiento, etc.), con respecto a La Herrera N/O se manifiesta un descrédito de los proyectos y escasas expectativas de mejora a corto plazo. La visión del proceso de regeneración es distinta según el lugar de residencia, emergiendo un enfoque más pesimista que afecta el estado de ánimo colectivo en los residentes de Trintxerpe.

Se señalan como áreas de impacto: el deterioro urbano, poca paseabilidad, mala accesibilidad a servicios, pocos espacios de esparcimiento y sociabilidad, escaso dina-

demografía- eta ekonomia-bizitasun gutxi. Hobetzeko aukerak ikusten zaizkien arazoak dira.

3.4. Azterketa kuantitatiboa

Elkarrizketatuen %68k uste du atsedeneku gutxieg dagoela hiri-ingurunean, eta komunitateko bizitza sozial eta ekonomikoa egituratzeko moduko lekuak falta direla. Euskadi etorbidea da erdigune-izaera handiena duen espazioa, hiriko jardueraren ardatz izan daitekeena; baina, gaur egun, elkarrizketatuen %45 astean behin baino gutxiagoan joaten da hara. Partehartzaileen %23k dio zailtasunak izaten dituela etorbide horretara hurbiltzeko, bertara iristeko aipatutako zailtasunagatik eta aparkalekurik ez dagoelako.

Gainera, inguruarekiko halako identifikazio-falta bat eta espazioarekiko jabetze-eza antzematen da elkarrizketatuengan; halako moldez non %35 ez baita gai bereziki identifikatuta/harro sentiarazten duen kokalekurik zehazteko. Puntas inguru da nolabaiteko atxikimendua sortzen duen toki bakarra.

Galdeketa egin zitzaizen lagunen %38k oztupoak identifikatu zituen bere hiri-ingurunean oinez ibiltzeko: oinezkoentzako bide gutxieg eta paseatzeko toki gutxieg dagoela, zirkulazioa handiegia eta lurra aldapatsuegia dela. Hala eta guztiz ere, elkarrizketatuen erdiak, gutxienez, ordu-erdi bateko ibilalditxo egiten du egunero.

Garraio publikoa funtsezko baliabidea da konektibitate eta mugikortasun gaietarako. Ildo horretatik, ikerketa-eremuan bizi den populazioarentzat, Topo-metroa da Donostiara eta eskualdearen gainerakora iristeko aukera ematen dion baliabidea, ordutegi zabal eta sarria duela. Hala ere, partehartzaileen %10ek bakarrik adierazten du garraibide hori sarri samar erabiltzen duela. Elkarrizketatuen %80k uste du geltokirako oinezkoen bidea zikin eta egoera txarrean egoten dela eta ez dela batere segurua.

Erantzun ona jaso du oinezkoentzako pasealeku berri bat –bidegorri eta guzti– egiteko aukerak, kalitatezko ingurune batean, Trintxerpe lotuz Herrerako plazarekin (Topo-metroaren geltokia). Erantzun ona jaso du, halaber, haren luzapena egiteak ere, ur-xaflaren ertzetik lonja berriko atsedenekura doala, eta handik, Puntas aldera. Azken finean, Puntas aldea Topo-metroaren geltokiarekin lotuko lukeen pasealeku bat: alegia, herritarren kokagunerik preziatuena, eremu horretako konektibitate-gune nagusiarekin. Pasealeku berri horrek onespén handia eragin du populazioaren artean, halako moldez non ikertutako populazioaren %78ren

mismo demográfico y económico. Problemas para los que se identifican posibles propuestas de mejora.

3.4. Estudio Cuantitativo

El 68% de los encuestados valoran insuficiente la dotación de áreas de esparcimiento en el entorno urbano y la falta de espacios que actúen como vertebradores de la vida social y económica de la comunidad. Euskadi etorbidea es el espacio con mayor centralidad, que podría actuar como eje de actividad urbana, pero actualmente el 45% de los encuestados acude a esta avenida menos de una vez por semana. El 23% de los participantes afirma encontrar impedimentos para acercarse a esta avenida, siendo los principales obstáculos referidos la dificultad del acceso hasta la zona y la falta de aparcamiento.

Además, se detecta una baja identificación con el entorno y apropiación del espacio por parte de los encuestados, de manera que el 35% no es capaz de identificar ningún enclave con el que se sienta especialmente identificado/orgullosa y únicamente el área de Puntas genera una cierta adhesión.

El 38% de las personas sondeadas identificaron obstáculos para caminar en el entorno urbano que asociaron con una insuficiente dotación de vías peatonales, escasez de espacios paseables, exceso de tráfico y la pronunciada pendiente del terreno. A pesar de ello, el 50% de los encuestados caminan al menos media hora diariamente.

El transporte público es un recurso clave en cuestión de conectividad y movilidad. En este sentido, la población residente en el área de estudio cuenta con el Topo-metro como recurso que brinda la oportunidad de acceder a la capital San Sebastián y al resto de la comarca en un amplio y frecuente horario. Sin embargo, actualmente sólo un 10% de los participantes refiere utilizar este medio de transporte de manera habitual. El 80% de los encuestados opina que el trayecto peatonal a la estación está sucio, en mal estado y es inseguro.

Se valora favorablemente la posibilidad de un nuevo paseo peatonal, con el correspondiente carril bici, en un entorno de calidad, que conectara Trintxerpe con la plaza de Herrera (estación del Topo-metro), así como su prolongación, bordeando la lámina de agua, hasta el área de esparcimiento de la nueva lonja y desde ésta a Puntas. En definitiva, un paseo que conectara Puntas, el enclave más apreciado por la población, con la estación del Topo-metro, polo de conectividad del área. Este nuevo paseo suscita gran aceptación por parte de la población, de modo que el 78% de las personas sondeadas lo valora como un recurso que promovería el ejercicio

ustez, ariketa fisikoa sustatuko baitu, eta inkestatuen %68k oinez ibiltzeko erabiliko. Era horretan, populazio fisikoki aktiboa %18 igoko litzateke. %90ren ustez, gainera, pasealeku horrek Euskadi etorbidea-Esnabidea erakargarriago egingo luke, bertakoentzat nahiz kanpokoentzat, beraien aisialdirako, harremanetarako eta kontsumorako.

4. IDENTIFIKATU DIREN ERAGINAK

4.1. Arrain-lonja berriari loturiko eraginak

Esku-hartzeak hiri-inguruneen kalitatea hobetuko du atsedenek berri bat sortuz aire zabalean, eta elkarrekintzarako eta soziabilitaterako modu positiboan lagunduz. Horretaz gain, erabilera anitzeko bi gune sortuko ditu eraikin barruan, denen artean erabiltzeko balio izan dezaketenak eta, atzera, modu positiboan eragingo luketenak gai horietan. Abagune bat da, halaber, eremu horretako paseorako aukera hobetzeko eta, beraz, jarduera fisikoa sustatzeko. Enplegua sortzeari dagokionez, egin diren aurreikuspenek ez badute iradokitzen ere lonjan bertan jarduera modu esanguratsuan hazterik, ingurua hobetzeak leku horretan establezimendu eta zerbitzu berriak sortzea eragin dezake. Izan ere, azterketa bibliografikoaren emaitzen arabera, faktore multzo horrek modu positiboan eragiten du eremuko populazioaren osasun fisikoan eta emozionalean.

Hala eta guztiz ere, lonja berria hirigunean uzteak arreta handiz ibili beharra dakar jarduera horrek sor ditzakeen arriskuak direla eta. Ibilgailu astunen joan-etorriak istripuak gertatzeko arriskua areagotuko du eta zarata sortuko; askotan, gainera, bertakoen loaldian. Bestalde, arrainaren zamalanak egin bitartean kamioiak zain egoteko, leku ireki bat jarriko da aire zabalean, tramexezko teilatuarekin. Zenbaitetan, itxoiten dauden kamioiek hozkailuak hotz eduki behar izaten dituzte, horretarako argindar-harguneak behar dituztela, edota, halakorik ez badago, motorra piztuta eduki. Lonja berriaren proiektuan, zamalanetako kaian argindar-harguneak jartzeko asmoa dago; izan ere, horrela, kamioiek leku horretan motorra piztuta edukitzea saihestuko litzateke –lonja zaharrean hala gertatzen zen– airera zarata eta kutsagarri gutxiago igorri.

Aire-giroketa itsasoko geotermia bidez egin nahi da proiektuan; horrek aurrerapen handia esan nahi du berrikuntzarako nahiz jasangarritasunerako. Dena den, lonja zaharrean dauden ur/airearen hoztorreak bertan utziko dira. Beraz, eraikinaren estalkian atsedenek berria sortuta, haren eta hoztorreen artean geratzen den tarte baliteke nahikoa ez izatea ekipo horrek sortutako

físico y el 68% de los encuestados lo frecuentarían para caminar. De esta manera la población físicamente activa aumentaría un 18%. El 90% opina, además, que este paseo conferiría a Euskadi etorbidea-Esnabidea un mayor atractivo para residentes y visitantes en sus actividades de ocio, relación y consumo.

4. IMPACTOS IDENTIFICADOS

4.1. Impactos asociados a la nueva lonja de pescado

La intervención mejorará la calidad del entorno urbano, aportando una nueva zona de esparcimiento al aire libre que contribuirá positivamente a la interacción y a la sociabilidad. Además, crea dos espacios polivalentes en el interior del edificio con posibilidad de ser destinados a uso comunitario, que revertiría positivamente en el mismo sentido. Constituye asimismo, una oportunidad para mejorar la paseabilidad del área y de promover, por tanto, la actividad física. En cuanto a la generación de empleo, aunque las previsiones hechas no apuntan un crecimiento significativo de la actividad en la propia lonja, la mejora del entorno podría incentivar la creación de nuevos establecimientos y servicios en el área. Según los resultados de la revisión bibliográfica, este conjunto de factores impactan positivamente en la salud física y emocional de la población del área.

Sin embargo, mantener la ubicación de la nueva lonja en el casco urbano, requiere prestar atención a posibles riesgos derivados de la actividad. El tránsito de vehículos pesados dará lugar a un mayor riesgo de accidentes y generará ruido, coincidiendo frecuentemente con el periodo de sueño de los residentes de la zona. Por otro lado, para el estacionamiento de los camiones a la espera de carga/descarga de pescado, se destina un recinto abierto al aire libre a través de una cubierta de tramex. En ocasiones, los camiones en espera requieren mantener el frío de sus cámaras, para lo que han de recurrir a una toma eléctrica o, en su defecto, mantener el motor encendido. El proyecto de la nueva lonja prevé dotar a los muelles de carga con tomas de electricidad lo que deberá evitar que los camiones mantengan el motor encendido en esta zona, reduciéndose así la emisión de ruido y contaminantes al aire que se daba en la lonja antigua.

- Existe la posibilidad de un aumento de la exclusión social y las divisiones entre los vecinos/as actuales y futuros cuando los residentes en o cerca de una zona de regeneración no ven mejoras en sus propios hogares o barrios⁶⁹.
- El coste de la compra de la vivienda y / o alquileres puede aumentar con la regeneración del área y la creación de vivienda nueva y mejorada. Esto puede afectar negativamente a las personas con bajos ingresos, disminuyendo su poder adquisitivo y pudiendo conducir a un empeoramiento de su dieta, la reducción de sus actividades recreativas escolares, etc⁷⁰. Además existe el riesgo de gentrificación, esto es, el desplazamiento de las personas con menos recursos por población nueva con mayores recursos socioeconómicos⁷¹⁻⁷³.

6.3. Espacios verdes urbanos

El termino «espacios verdes» hace referencia a los parques, jardines y otras áreas de vegetación que pueden ofrecer oportunidades de recreo en el medio urbano y que habitualmente son escasos en los desarrollos urbanos de alta densidad.

- Se dispone de abundante evidencia que asocia los espacios verdes urbanos con beneficios en la salud física y mental. El contacto directo e indirecto con la naturaleza, jardines y parques, tiene un efecto restaurador que mejora el bienestar^{74,75}.
- La evidencia muestra que uno de los elementos clave que promuevan la actividad física de la ciudadanía es el espacio verde urbano⁷⁶. En un amplio estudio llevado a cabo en Europa se encontró evidencia de que los residentes en áreas con mayor proporción de zonas verdes (quintil superior) desarrollaban actividad física tres veces más que los residentes de las áreas con menor proporción de zonas verdes (quintil más bajo)⁷⁷.
- La actividad física regular reduce el riesgo de enfermedades cardiovasculares, de algunos tipos de cáncer y previene la diabetes tipo 2^{66,78}; mejora la salud músculo-esquelética, contribuye al control del peso y reducir los síntomas de la depresión⁶⁶. Además, al combatir el sobrepeso, mejora la movilidad de las personas de más edad y protege del riesgo de caídas⁷⁸.
- En una revisión sistemática se encontró asociación entre espacios verdes y obesidad⁷⁹. Se ha sugerido que la probabilidad de tener sobrepeso u obesidad

edukitzeko probabilitatea %40 adina txikiago izan daitekeela berdegune askoko bizileku-ingurune-tan⁷⁷.

- Jarduera fisikorik ezak bularreko eta koloneko min-bizien %21-25 bitartean eragiten duela uste da, eta diabetesaren %27, eta bihotzeko gaixotasun iskemikoaren %30, gutxi gorabehera⁶⁶.
- Oinez ibiltzeko ohitura eragiteaz gain, berdegune erakargarri eta ongi zainduak beste ondorio batzuk ere badakartzate: estresa eta nekea gutxitzea eta gizarte-harremanak ugaritzea⁸⁰.
- Berrikuspenen berrikuspen batek berdeguneek ongizate mentalean duten garrantziaren ebidentzia azaltzen du (literatura ugari dago horretaz)⁷⁶. Onartzen da berdeguneen beharra dagoela kirol aktibo anitz eskaintzeko, baina baita egituratu gabeko jarduera pasiboetarako eta estresa kentzeko jardueretarako ere. Bereziki garrantzitsua da hori bizitoki-dentsitate handiko tokietan.
- Parkearen estetika, zuhaitzak egotea, eraikin erakargarriak eta ura ikusi ahal izatea, instalazioen ekipamendua eta mantentze-lanak faktore garrantzitsuak dira erabiliak izan daitezten⁸⁰⁻⁸². Paisaiaren ezaugarri-aldaerak eta paisaiaren erakargarritasuna gehiago paseatzearekin eta garraio aktiboarekin lotzen dira⁸³.
- Parkearen estetika egon daiteke segurtasunari lotuta ere, eta garrantzitsua da egoera onean edukitzea, zabartzen uzten bada jendeak erabiltzeari utz diezaiokete eta⁸⁴. Azterlan egin berriek nabarmentzen dutenez, segurtasuna hautemateak eragin egiten du berdeguneak erabiltzeko orduan^{82,84}.
- Badago ebidentziarik landaretzak aire-kalitatea hobetzen duela esateko, aireko partikula esekiak hostoetatik iragazten direla eta⁸⁵. Halaber, eragin hori kuantifikatzeko azterlanik ez badago ere, jakina da landaretza trinkoa, zuhaitzak eta, baita, zuhaixkak ere, pantaila akustiko natural modukoak direla, hots, ingurunekeo zarata eta motordun zirkulazioaren zarata txikiagotzen dituztela⁸⁶.

6.4. Zoruaren erabilera mistoa

Zoruaren erabilera nahasteak esan nahi du espazioa aldagarri dela zoruaren bizitokitarako, merkataritzarako, lur publiko moduan eta atsedenerako erabiltzeko. Horri esker, herritarrek oinez egin ditzakete beraien eguneroko jardunak, jarduera fisikorik ezari aurre eginez.

puede ser hasta un 40% menor en entornos residenciales que contienen altos niveles de espacios verdes⁷⁷.

- La inactividad física se estima que causa alrededor de 21-25% del cáncer de mama y de colon, el 27% de la diabetes y aproximadamente 30% de la enfermedad isquémica del corazón⁶⁶.
- Aparte de estimular el hábito de caminar otros impactos reportados de espacios verdes atractivos y bien mantenidos incluyen la reducción del estrés y la reducción de fatiga así como un aumento de la interrelación social⁸⁰.
- Una revisión de revisiones evidencia la importancia de los espacios verdes urbanos para el bienestar mental, ampliamente recogida en la literatura⁷⁶. Se reconoce la necesidad de espacios verdes urbanos para proporcionar servicios a una amplia gama de deportes activos, pero también para actividades no estructuradas pasivas o desestresantes. Esto es particularmente importante en áreas con alta densidad residencial.
- La estética del parque, la presencia de árboles, edificios atractivos y vistas al agua, el equipamiento y el mantenimiento de las instalaciones son factores que condicionan que sea usado⁸⁰⁻⁸². La variedad de las características del paisaje y su atractivo se asocia con niveles más altos de paseo y transporte activo⁸³.
- La estética del parque también puede estar relacionada con la seguridad y es importante mantenerla ya que si se descuida puede desincentivar su uso⁸⁴. Estudios recientes destacan cómo la percepción de seguridad influye en el uso de los espacios verdes^{82,84}.
- Se dispone de evidencia de la capacidad de la vegetación de mejorar la calidad del aire, como consecuencia de que las hojas filtran las partículas en suspensión del aire⁸⁵. Asimismo, aunque no se dispone de estudios que cuantifiquen el efecto, se sabe que la vegetación densa, arbolado y también los arbustos actúan como pantalla acústica natural, contribuyendo a reducir el ruido ambiental y de tráfico motorizado⁸⁶.

6.4. Uso mixto del suelo

La mezcla de usos del suelo se refiere a la variabilidad espacial con la que los usos residenciales, comerciales, terrenos públicos y recreativos se distribuyen entre sí. Permite que las actividades cotidianas de la ciudadanía puedan ser llevadas a cabo caminando, contribuyendo a combatir la falta de actividad física.

- Egiazatu egin da zerbitzu anitzak oinez joateko distantziara edukitzeak bidaia gutxiago egitea eragiten duela, garraio publikoa sustatzen duela eta sozializazioa bultzatzen; bestela, autoz joango bailirateke zerbitzu horietara⁸⁷. Zoruaren erabilera nahasteak jarduera fisiko gehiago egitea eta kohesio soziala sustatzen ditu^{88,89}.
- Instalazio, lokal eta zerbitzu multzoa eskaintzeak «erabilera anitzeko» ibilbideak egitea eragiten du eta gizarte harremanetarako, garraio aktiborako eta jarduera fiskorako aukerak ugaritzen dira⁹⁰.
- Zoruaren erabilera mistoa, gertuko merkatal eskaintza, lanpostuak auzoan bertan izatea, garraio publikoa gertu eta maiz izatea, kale arteko konektibitatea, oinezkoentzako eta txirinduentzako bideak edukitzea, leku irekiak, intereseko lekuak eta kaleetan behar adina argi izatea, atributu horiek guztiak auzo baten paseatzeko aukera gehiago edukitzearekin lotzen dira eta bertakoek jarduera fisiko gehiago egitearekin⁵². Orobat, oraintsuko berrikuspenen arabera, ebidentzia jaso da esateko zerikusi positiboa dutela zoruaren erabilera mistoak eta auzo bateko paseatzeko aukerak bertako biztanleek gorputz-masaren indize-maila (obesitatea) txikiagoa izatearekin⁹¹.
- Azterlan batzuek iradokitzen dutenez, zenbat eta bizitoki-dentsitate handiago egon orduan eta jarduera fisiko gehiago egiten da. Dena den, lotura horretan, nahasmena eta okerra eragiten duten zenbait faktore identifikatu dira. Aurrera begirako azterlan baten arabera, urbanizazio maila txikiko eremu horietan (hedadura handi eta populazio-dentsitate txikikoak), lotura zegoen bizitoki-dentsitatearen eta zenbait jardueraren artean (paseoa, txirindularitza, footing); eta, aldiz, eremu hiritartuagoetan, ez zen ageri jarduera fisikoaren eta dentsitatearen arteko loturarik gizonetakoetan, eta emakumezkoetan, berriz, alderantziz gertatzen zen⁹².
- Instalazioak eta zerbitzuak, sustapen, bilera informal eta gizarte-kohesioa medio, gizarte-sareak eta pertsonarteko harremanak sortzeko eta horiei eusteko bitarteko direla ikusi da. Horrek, aldi berean, estresa arintzen eta buruko osasuna eta ongizatea hobetzen laguntzen du⁹³.
- Ikerketek erakusten dute ongizatea eta bizi-kalitatea, batez ere adinekoetan eta haurretan, faktore hauen mende dagoela, hein handi batean: gizarte-garapenerako eta komunitateko elkarrekintzarako/parte-hartzerako aukerak edukitzea eta aukera horiek eskura izatea⁹⁴.
- Zoruaren erabilera nahasita, oro har, gutxitu egiten dira autoz egindako joan-etorriak eta zirkulazio-pi-
- Se ha demostrado que la disposición de servicios múltiples a una distancia que permite el desplazamiento caminando, produce menos viajes, promueve el transporte activo y potencia socializar, cuando de otra manera acudirían a los servicios en coche⁸⁷. La mezcla de usos del suelo promueve una mayor actividad física y una mayor cohesión social^{88,89}.
- Proporcionar un conjunto de instalaciones, locales y servicios genera recorridos «multiuso», aumentando las oportunidades para la interacción social, transporte activo y actividad física⁹⁰.
- El uso mixto del suelo, la oferta comercial cercana, plazas de empleo en el barrio, transporte público próximo y frecuente, conectividad de las calles, carriles peatonales y de bici, espacios abiertos, lugares de interés e iluminación suficiente de las calles, son todos ellos atributos que se asocian con una mayor paseabilidad de un barrio y con la mayor actividad física de sus residentes⁵². A su vez, recientes revisiones han obtenido evidencia de la asociación positiva entre uso mixto del suelo, paseabilidad de un barrio y menor nivel de Índice de masa corporal (obesidad) en sus habitantes⁹¹.
- Algunos estudios sugieren que la mayor densidad residencial se asocia con mayores niveles de actividad física. No obstante, en esta asociación se identifican varios factores de confusión y sesgo; un estudio prospectivo encontró que en áreas de bajo grado de urbanización (extensas y con poca densidad de población) había asociación entre la densidad residencial y actividades como el paseo, el ciclismo y el footing, mientras que en áreas más urbanizadas la asociación entre actividad física y densidad no aparecía para los hombres y resultaba inversa para las mujeres⁹².
- Las instalaciones y servicios han sido identificados como canales para la creación y mantenimiento de las redes sociales y las relaciones personales a través de la promoción y facilitación de reuniones informales y la cohesión social. Esto a su vez puede ayudar a aliviar el estrés y mejorar la salud mental y el bienestar⁹³.
- Las investigaciones muestran que el bienestar y la calidad de vida, especialmente para las personas mayores y los niños/as, es en parte dependiente de la disponibilidad y accesibilidad de las oportunidades para el desarrollo social y la interacción / participación comunitaria⁹⁴.
- La mezcla de usos del suelo generalmente se traduce en la reducción de viajes en automóvil y de la con-

laketak, eta, ondorioz, baita aire-kutsadura ere. Hala eta guztiz ere, zoruaren erabilera mistoak dentsitate handiko auzoak sortarazten baditu, autoen eta gainerako ibilgailuen kopurua igo egingo da eremu horretan, eta, beraz, tokiko aire-kutsaduraren maila ere bai⁹⁵. Erabileren nahasketa modu bertikalean egiten denean (eraikin garaiak, zerbitzu askorekin) sor daiteke egoera hori.

- Aurreko ekintzen hiri-legatuak, batzuetan, oztopoz izaten dira hiri-eremu osasungarriak sortu ahal izateko. Herentzia hori beste norabide batzuetan bideratzeko, esaterako, ibiltzeko erraztasuna, zoruaren erabilera nahasia, konektibitatea eta gunee osasungarriak, errazago eta merkeago egiten da hiri-garapenak berriak direnean. Hala ere, osasunerako irabazi handienak jada badiren auzoetan egindako doikuntzen bidez lortzen dira⁵².

6.5. Irisgarritasuna eta garraioa

Irisgarritasuna eremu bateko biztanleek azpiegiturara eta zerbitzuetara joateko duten erraztasunari esaten zaio. Beraz, garraio aktiborako, garraio kolektiborako eta bideen konektibitatearako aukerak edukitzea esan nahi du.

- Irisgarritasun desagokiak auto pribatuaren mende jartzen gaitu, eta ugariagoa da jarduera fisikorik eza, eta, gainera, atmosferara kutsatzaileak isurtzen dira osasunari modu negatiboan erasanez⁹⁶.
- Azterlanek erakutsi dutenez, oro har, bidegorriak eta oinezkoen bideak jartzeak txirringularen nahiz oinezkoen istripuak gutxitzea dakar, eta, epe luzera, jarduera fisiko maila igo dezake⁹⁷. Horrelako bideak arrakasta izan dezaten, garrantzitsua da garraio publikoa abiatzen eta iristen den lekuetatik gertu egoeta eta txirringulak aparkatzeko azpiegiturak jartzea.
- Garraio publikoa diruz lagundua, maiztasun handikoa, puntuala eta fidagarria denean, eta bideen konektibitatea hobetzen bada, aukeretara eta zerbitzuetara iristeko modua hobetzen da. Horrek, berriz, banakoaren eta gizartearen bizimoduaren kalitatea hobetu dezake, eta bakartasuna gutxitu⁹⁸. Halaber, badago probarik garraio publikoa izateak urrutiko lan-postuak eskuratzeko aukera ematen duela azaltzen duenik⁹⁹.
- Irisgarria eta fidagarria ez den garraio publikoa eremu kaltetuenetan egon ohi da, eta desberdintasun sozial handiagora darama. Garraio publikoa

gestión del tráfico, por tanto en la reducción de la contaminación del aire. Sin embargo, cuando el uso mixto del suelo da lugar a barrios de alta densidad, se producirá un aumento del número de automóviles y otros vehículos en el área y por tanto, mayores niveles de contaminación del aire a nivel local⁹⁵. Esta situación se puede dar cuando la mezcla de usos se aborda en vertical (altos edificios que reúnen diversidad de servicios).

- El legado urbano de actuaciones anteriores, a veces supone una limitación para la creación de entornos urbanos saludables. Los cambios necesarios para reconducir esta herencia hacia la mayor transitabilidad, mezcla de usos del suelo, conectividad y espacios saludables, son más fáciles y menos costosos de abordar en los nuevos desarrollos urbanos. No obstante las mayores ganancias en salud se obtienen a través de los reajustes abordados en los barrios ya existentes⁵².

6.5. Accesibilidad y transporte

La accesibilidad se refiere a la facilidad con que los residentes de un área pueden desplazarse a las infraestructuras y servicios. Hace referencia, por tanto, a las oportunidades de transporte activo, de transporte colectivo y a la conectividad de los viales.

- La deficiente accesibilidad conduce a la dependencia del coche privado, dando lugar a una mayor inactividad física y a la emisión de contaminantes a la atmósfera, repercutiendo por tanto negativamente a la salud⁹⁶.
- En general los estudios han demostrado que la provisión de carriles bici y senderos peatonales reduce los accidentes tanto de ciclistas como de peatones y puede dar lugar a un aumento a largo plazo en los niveles de actividad física⁹⁷. Para el éxito de este tipo de viales es importante que se acerquen a los lugares de partida y llegada del transporte público y se dote de infraestructura para el aparcamiento de las bicis.
- El transporte público subvencionado, frecuente, puntual y fiable, y la mejora de la conectividad de los viales, ofrecen un mayor acceso a oportunidades y servicios. Esto a su vez puede mejorar la calidad de vida individual y social, y reducir el aislamiento⁹⁸. Asimismo, existen pruebas de que la disponibilidad de transporte público posibilita el acceso a puestos de trabajo más distantes⁹⁹.
- El transporte público inaccesible y poco fiable tiende a encontrarse en zonas desfavorecidas y conduce a una mayor desigualdad social en salud. Los que más

eta konektibitatea hobetuz gero, emakumeak, haurrak, ezinduak, gutxiengo etnikoak, adinekoak eta diru-sarrera txikia dutenak dira onurarik handiena jasotzen dutenak¹⁰⁰.

- Errepide nagusiak etxebizitzetatik eta ikastetxeetatik gertu badaude, konektibitateak zauritu gehiago eragin ditzake bizikletazaleen eta oinezkoen artean¹⁰¹.
- Zauritzeko arriskua, batez ere oinez ibiltzen diren haurren artean, asko handitzen da, besteak beste, zirkulazio-bolumenarekin, 40 km/h baino handiagoko abiadurarekin, espaloian aparkatutako autodentsitate handiarekin, eta gurutzatu beharreko errepide kopuruarekin¹⁰².
- Bizitoki-eremuak gurutzatzen dituzten errepide nagusiek hesi-efektua egin dezakete haren bi aldeetako komunitateen artean, zerbitzuetara iristea galaraziz eta bien arteko harreman soziala eta kohesioa etenez, batez ere, haur eta adinekoen artean^{73,103}.
- Giro-zarataren iturrien artean, hiri ingurunean, ibilgailu motordunak nabarmentzen dira¹⁰⁴, eta kamioiak dira gehien ateratzen dutenariakoak¹⁰⁵.
- Giro-zarata izaera sumintzearekin, loaren nahasmentuekin eta osasunerako eragin negatiboekin¹⁰² (estresa, hipertentsioa eta bihotzeko gaixotasunak) lotu izan da¹⁰⁶.
- Ibilgailu motordunen zarataren eraginpean egotea miokardioko infartuarekin, bularraldeko anginarekin eta bihotzeko beste gaixotasun batzuk izateko arriskua handitzearekin lotu izan da¹⁰⁷⁻¹⁰⁹. Halaber, zirkulazioaren zarata haurraren garapen kognitiboko arazoekin ere lotu izan da, adibidez, ulermen-zailtasuna, oroimen- eta arreta-arazoak eta ikas-kuntzako errendimendu eskasia¹¹⁰⁻¹¹².
- Ibilgailu motordunek sortutako atmosferako kutsadurak, bestalde, biriken funtzionamenduari erasaten dio eta bihotz-hodietako gaixotasunekin, minbiziarekin, eta diabetesak eta beste kausa batzuek eragindako heriotzarekin lotzen da; gainera, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa areagotu ere egin dezake^{113,114}.
- Ibilgailuetako ihes-hodiek berotegi-efektua duten gasak isurtzen dituzte, klima-aldaketa areagotuz, eta horrek beroarekin zerikusia duten gaixotasunak eta muturreko gertakari meteorologikoetatik datozen osasunaren gaineko eraginak ugaritu ditzake; bai eta asma-erasoak larriagotu ere, polen-ekoizpean gerta daitezkeen aldagetak direla eta^{115,116}.

se benefician de la mejora del transporte público y la conectividad son mujeres, niños/as, personas con discapacidad, minorías étnicas, mayores y personas con bajos ingresos¹⁰⁰.

- Cuando las carreteras principales están próximas a viviendas y escuelas, la conectividad puede dar lugar a un mayor número de lesiones de ciclistas y peatones¹⁰¹.
- El riesgo de lesiones, especialmente para los niños/as peatones, aumenta con el volumen de tráfico, la velocidad de circulación a más de 40 km/h y una alta densidad de coches aparcados en las aceras, así como con el número de carreteras que tienen que cruzar¹⁰².
- Las carreteras principales que atraviesan las áreas residenciales puede dar lugar a un efecto barrera entre las dos comunidades a cada lado de ésta, dificultando el acceso a servicios, interrumpiendo la relación social y la cohesión entre ambas, especialmente para niños/as y personas mayores^{73,103}.
- Entre las diversas fuentes del ruido ambiental, en el medio urbano destaca el tráfico motorizado¹⁰⁴, con una importante contribución de los camiones¹⁰⁵.
- El ruido ambiental se ha asociado con irritación del carácter, trastornos del sueño, así como efectos negativos en la salud¹⁰² como stress, hipertensión y las enfermedades cardiacas¹⁰⁶.
- La exposición crónica al ruido de tráfico motorizado se ha asociado con un mayor riesgo de infarto de miocardio, angina de pecho y otras enfermedades cardiacas¹⁰⁷⁻¹⁰⁹. Asimismo, el ruido de tráfico se ha asociado a problemas en el desarrollo cognitivo del niño/a, como dificultad de comprensión, problemas de memoria y de atención y menor rendimiento en el aprendizaje¹¹⁰⁻¹¹².
- Vehículos motorizados afecta negativamente a la función pulmonar y se relaciona con enfermedades cardiovasculares, cáncer, mortalidad por diabetes y otras causas, y puede exacerbar la enfermedad pulmonar obstructiva crónica^{113,114}.
- Los tubos de escape de los vehículos emiten gases de efecto invernadero que contribuyen al cambio climático, lo que puede aumentar la incidencia de enfermedades relacionadas con el calor y los efectos en la salud derivados de eventos meteorológicos extremos, así como conducir a la exacerbación de los procesos de asma debido a los cambios en la producción de polen a que se pudieran dar lugar^{115,116}.

6.6. Segurtasun-pertzepzioa

Aurreko atal guztietan deskribatu dugu nola eragin dezaketen bizitoki-eremuen ezaugarriek, haietako berdeguneek, zoruaren erabilera nahasiak eta irisgarritasunak segurtasunaren pertzepzioan. Delinkuentziari diogun beldurrak eta zirkulazio-istripu eta erorketak izateko arriskuak eragin dezakete segurtasun-ezaren sentipena. Kapitulu honetan, segurtasun-eza hautemateak osasunean duen eraginari buruz aurkitu dugun ebidentzia laburtuko dugu.

- Segurtasun ezaren sentipena oztopo da jarduera fisikoa egiteko ohitura edukitzeko, batez ere, diru-sarrerara txikiko auzoetako emakumeentzat¹¹⁷. «Ebaluazioen ebaluazio» batek nabarmentzen duenez, auzo seguru eta ongi zainduak lotura dute oinez ibiltzearen eta jarduera fisikoaren tasak handiagoak izatearekin^{65,119}.
- Segurtasun-eza hautemateak atzerakoa eragin diezaieke pertsonari jardueretan parte hartzeko, eta horrek, interrelazio soziala murriztu eta osasun fisikoari eta mentalari kalte eragin¹¹⁹.
- Auzo bateko anabasa-zantzuek eragiten duten delinkuentziarekiko beldurra eta segurtasun-ezaren sentipena estres handiagoa izatearekin eta deprezioarekin lotzen da, azken finean, buruko osasun txarragoa izatearekin^{120,121}.
- Zenbait azterlanek iradokitzen dute delinkuentziarekiko beldurrak erasan egiten diola komunitate bateko kohesioari eta gizarte-interrelazioari^{122,123}.
- Segurtasunik gabeko auzotzat sumatzen direnetan haurrek arrisku handiagoa dute hiperaktibitate- eta oldarkortasun-arazoak garatzeko eta herabe bilakatzeko⁹⁴.

6.7. Paseagarritasuna

«Paseagarritasuna» (walkability) terminoak aire zabalean segurtasunez, eroso, atseginez eta modu baliagarrian ibiltzeko zenbaterainoko aukera dagoen adierazten du¹²⁴. Horregatik, hiri-ingurune hainbat ezaugarriren emaitzat har daiteke. Ezaugarri horien artean leudeke zoruaren erabilera mistoa, hiriko berdeguneak, ingurune osasungarriak eta hirian dagon segurtasunaren pertzepzioa.

Oinez ibiltzea ariketa fisikoa egiteko modu hedatua da eta gizartearen gehiengoari erakargarri zaio. Jarduera fisikoak makina bat gaixotasun izateko arriskua (diabetesa, bihotz-hodietako gaixotasunak, minbizi mota batzuk) gutxitzen eta horien larritasuna arintzen ditu. Balio-

6.6. Percepción de seguridad

En cada uno de los anteriores apartados se ha descrito como las características de las áreas residenciales, de sus zonas verdes, la mezcla de usos del suelo y la accesibilidad son factores que pueden influir en la percepción de seguridad. La sensación de inseguridad puede estar motivada por el miedo a la delincuencia, por el riesgo de accidentes de tráfico y el de caídas. En este capítulo sintetizamos la evidencia encontrada en torno a la repercusión de la percepción de inseguridad en la salud.

- Sentirse inseguro/a es una barrera a la actividad física regular, especialmente para las mujeres en barrios de bajos ingresos¹¹⁷. Una «evaluación de evaluaciones» destaca cómo los vecindarios seguros y cuidados están asociados con tasas más altas de caminar y de actividad física^{65,118}.
- La percepción de inseguridad puede frenar a las personas a participar en actividades, reduciendo la interrelación social y repercutiendo negativamente en la salud física y mental¹¹⁹.
- El miedo a la delincuencia y la sensación de inseguridad a que inducen los signos de desorden de un barrio, se asocia con mayor estrés, depresión y, en definitiva, con una peor salud mental^{120,121}.
- Se cuenta con estudios que sugieren que el miedo a la delincuencia puede repercutir negativamente a la cohesión e interacción social de una comunidad^{122,123}.
- Los niños/as que viven en barrios que perciben como no seguros tienen mayor riesgo de desarrollar problemas como la hiperactividad, la agresión y volverse retraídos⁹⁴.

6.7. Paseabilidad

El término «paseabilidad» (walkability) se refiere a la medida en que el entorno al aire libre apoya el caminar al hacerlo seguro, cómodo, agradable y práctico¹²⁴. Por ello podría considerarse el resultado de varias características del medio urbano, entre las que se incluirían el uso mixto del suelo, las zonas verdes urbanas, los entornos saludables y percepción de la seguridad con que cuenta la ciudad.

Caminar es una forma popular de ejercicio físico que atrae a la mayor parte de la sociedad. La actividad física reduce el riesgo y la gravedad de muchas enfermedades como la diabetes, enfermedades cardiovasculares y algunos tipos de cáncer. También se asocia con una mayor

bizitza handiagoarekin eta ezintasuna garatzeko arrisku txikiagoa izatearekin ere lotzen da. Oinezkoen-tzako inguruneak sortzeak asko errazten dio jendeari sasoiko egoteko beharrezko den jarduera fisikoaren mailari eusten; norbere etxe inguruan ibil daitekeenez, eguneroko joan-etorriak egiten hasten baita. Bereziki garrantzitsua da oinezkoentzako eta gidatzen ez dakiten pertsona zaurgarrientzako; esate baterako, diru-sarrera txikiak dituztenentzat, haurrentzat eta adinekoentzat.

- Hiri-diseinuak jarduera fisikoa egiteko aukerei nahiz obesitate-tasei eragin diezaieke. Espaloi seguruak, berdeguneak, parkeak eta garraio publikorako irisgarritasunak diabetesa eta beste gaixotasun kroniko batzuk garatzeko arriskua txikiagotzen dute^{125,126}.
- Ikerketek erakutsi dute komunitatean lorategiak eta pasealekuak edukitzeak (oinezkoen/bizikletazaleen mendi-bidexkak) eragin positiboa edukiko lukeela gertuko bizitoki-eremuetan, etxebizitzaren jabetzatasak igo eta garapen ekonomikoa suspertuko litzatekeelako¹²⁷.
- Komunitateko hainbat leku oinezkoen ibilbide horien bidez lotuta, aukera zabaltzen da komunitatea hobeto integratu, zorua modu eraginkorragoan erabili, zirkulazioa eta auto-pilaketa gutxitu eta bizi-kalitatea hobetzeko¹²⁸.
- Oinezkoen ibilbideek (eta txirrinduentzakoek) jarduera fisikorik ezarekin zerikusia duten osasun-gastuak murrizten dituzte. Galera-irabazien azterlan batean, bide horiek eraikitzen inbertitutako dolar bakoitzeko, mediku-gastuetan 3\$ aurreztu zitezkeela balioetsi zen¹²⁸.
- Ikerketek baieztatu egin dute parke eta olgetarako zentroak gertu eta ongi komunikatutako kaleak dauzkaten tokietan, jendeak jarduera fisiko gehiago egiten duela irisgarritasun zailagoa dutenetan baino^{129,130}.
- Jarduera fisikoa areagotzeko egindako komunitateko esku-hartzeak errentagarriak dira, gaixotasun kronikoen kasu gehiago agertzea galarazten baitute eta bizi-kalitatea hobetzen¹³¹.
- Inguru ibilerrazak sortzeak inplikazio esanguratsuak ditu gizarte-egoera onean eta ez hain onean dauden taldeen arteko osasun mailako gizarte-desberdintasunei heltzeko, babes-inguruneak eskainita, batez ere, joan-etorriarako oinez ibili beharra dutenei, jarduera fisikorako beste modurik ez dutenei eta autoa erabiltzeak sortzen dituen arriskuen eraginpean (airearen kalitate txarra, oinezkoak/ibilgailuak jotzeko arriskua) gehien egoten direnei¹²⁴.
- Ingurune fisiko eta sozialak eragin handiagoa du emakumeen ibiltzeko ohituran, gizonezkoenean

vida útil y un menor riesgo de desarrollar discapacidad. La creación de entornos peatonales hace que sea más fácil para la gente cumplir con los niveles de actividad física necesarios para una buena salud ya que se puede caminar cerca de su casa y se incorpora a los desplazamientos diarios. Es especialmente importante para los peatones y las personas vulnerables que no conducen como son las que viven con bajos ingresos, niños/as y ancianas.

- El diseño urbano puede afectar a las oportunidades de actividad física y a las tasas de obesidad. Factores como aceras seguras, zonas verdes, parques, y el acceso al transporte público reducen el riesgo de desarrollar diabetes y otras enfermedades crónicas^{125,126}.
- Los estudios han demostrado que los jardines comunitarios y los paseos (rutas para senderismo / ciclismo) tendrán un impacto positivo en las áreas residenciales cercanas, al aumentar las tasas de propiedad de la vivienda y estimular el desarrollo económico¹²⁷.
- La vinculación de diferentes partes de la comunidad con estos senderos peatonales abre la oportunidad para una mayor integración de la comunidad, un uso del suelo más eficiente, menor tráfico y congestión, y una mejor calidad de vida¹²⁸.
- Los senderos peatonales (y para bicicletas) reducen los costes de salud asociados con la inactividad física. En un estudio coste-beneficio se valoró que por cada dólar invertido en la construcción de estos caminos, se puede ahorrar cerca de 3\$ en los costes del médico/a¹²⁸.
- Las investigaciones han demostrado que las personas que tienen parques y centros recreativos cerca y viven en comunidades con calles bien conectadas presentan mayor actividad física que aquellas personas que no tienen un fácil acceso^{129,130}.
- Las intervenciones comunitarias dirigidas a incrementar la actividad física son rentables al reducir nuevos casos de muchas enfermedades crónicas y mejorando la calidad de vida¹³¹.
- La creación de entornos transitables tiene implicaciones significativas para abordar las desigualdades sociales en salud entre grupos sociales favorecidos y desfavorecidos, proporcionando entornos de apoyo a aquellos que dependen de caminar durante el transporte, no pueden acceder a otras formas de actividad física y que están más expuestos a los peligros creados por el uso del automóvil (por ejemplo, la mala calidad del aire, el riesgo de colisión de peatones / vehículos)¹²⁴.
- El entorno físico y social tiene un mayor impacto en el hábito de caminar para las mujeres que para los

baino. Gizonezkoek jarduera fisikorakorako leku gehienak beraienzat irisgarri direla hautematen dute^{132,133}. Emakumeek ez dute beraien auzoan ibiltzeko hainbesteko joerarik, segurua ez dela hautematen badute¹³⁴. Emakume kanadarrek esan zuten ibiltzeko adore ematen ziela auzoan paisaia interesgarriak edukitzeak eta iristeko moduko lekuak gertu izateak¹³³. Emakumezkoek gizonezkoek baino jarduera fisiko gutxiago egin, denbora gutxiago eduki eta garraiorako eta haurrak zaintzeko oinez ibili behar handiagoa izaten dutenez, emakumezkoen osasun-egoera orokorrari eragiteko, oso egokia litzateke oinezko ibilbideak jartzea.

- Oinez ibiltzea dagoen jarduerarik ohikoena eta gustukoena da adinekoen artean. Hala ere, zahartze-prozesuarekin lotzen diren aldaketak direla eta, denborak aurrera egin ahala, zailago egiten da aire zabalean oinez ibiltzea. Kexarik ohikoenen artean dugu errepideak ezin gurutzatu ahal izatea oinezkoen pasaguneari esleitutako denboran, azkarrago ezin ibili direlako¹³⁵. Adinekoetan gertatzen diren erorikoak osasun publikoko arazo garantzitsua dira¹³⁶ eta, baliteke, erortzeko beldurrak mugatzea aire zabalean ibiltzen diren denbora ere.
- Garraio publikoaren ibilbide baten hasierak eta bukaerak, oro har, hurrengo helmugarako pasea-leku bat izan ohi dute. Garraio aktiboaren osagarri hori aukera ona izan daiteke gomendatutako jarduera fisikoa lortzeko. Ildo horretatik, oraintsuko azterketa baten arabera, garraio publikoak 8 eta 33 minutu arteko tarte bat eskain-tzen du jarduera fisikorako¹³⁷.

6.8. Enplegua

Jarraian deskribatzen da enpleguaren –kontzeptu generikotzat hartuta– eta osasunaren arteko lotura; gainera, lantokiko gertutasunaren eta osasunaren arteko loturaren ebidentzia ere jasotzen da.

- Enplegua osasunaren gizarte-determinatzaile oso esanguratsua da. Oro har, nahiz eta lan-jardun askok eta askok arriskua berekin izan, osasunerako irabazi bat da lana edukitzea ez edukitzearen aldean^{138,139}.
- Azterlanek erakusten dute enplegua ugaritzeak biztanleen osasuna hobetzea dakarrela. Esate baterako, langabezia-tasek EBko herrialdeetako hilkortasunean duten eragina aztertu duten ikerketa batzuek erakutsi dutenez, heriotza-tasak behera egiten du, nabarmen, langabeziak behera egiten duenean. Gainera, egiaztatu zen enplegua ugaritzeak 10 urtean txikitzen duela guztizko hilkortasuna EB-15ean eta AEBetan¹⁴⁰⁻¹⁴³.

hombres. Los hombres perciben que la mayoría de los espacios para la actividad física son accesibles para ellos^{132,133}. Las mujeres son menos propensas a caminar en su vecindario si perciben que no es seguro¹³⁴. Las mujeres canadienses afirmaron un paisaje interesante en torno a su barrio y disponer de muchos lugares accesibles a poca distancia¹³³ les estimulaba a caminar. Dado que las mujeres hacen menos actividad física que los hombres, tienen menos tiempo y son más propensas a depender del paseo para el transporte y el cuidado de los niños/as pequeños, la provisión de rutas para caminar cómodamente tiene un gran potencial para contribuir al estado general de salud de las mujeres.

- Caminar es la actividad física más común y preferida entre las personas mayores. Sin embargo, debido a los cambios asociados con el proceso de envejecimiento, caminar al aire libre se hace más difícil con el tiempo. Las quejas más comunes incluyen la dificultad para cruzar las carreteras en los tiempos designados en el paso de peatones al no ser capaces de caminar más rápido¹³⁵. Las caídas entre las personas mayores son un importante problema de salud pública¹³⁶ y el miedo de caer también es más probable que limite el tiempo al aire libre.
- El principio y el final de un recorrido en transporte público normalmente incluyen un paseo hacia el próximo destino. Este componente de transporte activo puede ser una buena oportunidad para alcanzar la actividad física recomendada. En este sentido, una reciente revisión concluye que el uso del transporte público aporta un rango entre 8 y 33 minutos de actividad física¹³⁷.

6.8. Empleo

Se describe a continuación la asociación encontrada entre el empleo, como concepto genérico, y la salud; se recoge además la evidencia de la asociación entre proximidad al lugar de trabajo y salud.

- El empleo es un determinante social de la salud muy relevante. En general, y aun con los riesgos que el desempeño de muchas de las tareas laborales entrañan, tener un empleo supone una ganancia en salud frente a no tenerlo^{138,139}.
- Los estudios revelan que el aumento del empleo conduce a una mejor salud de la población. Por ejemplo, varios estudios sobre el impacto de las tasas de desempleo en la mortalidad en los países de la UE mostraron una clara disminución de las tasas de mortalidad cuando disminuye el desempleo. Además, se demostró que los aumentos en el empleo disminuyen la mortalidad total en 10 años en la UE-15 y EE.UU.¹⁴⁰⁻¹⁴³.

- Osasunaren Munduko Erakundeak hainbat modu identifikatu ditu, zeinetatik habiatuz gero enpleguak modu positiboan eragiten duen buruko osasunean^{138,139}. Enpleguak buruko osasuna babesten du. Langabetuek ongizate psikologiko txikiagoa izaten dute eta, besteak beste, depresio- eta antsietate-sintomak edukitzeaz gain, nork bere burua zauritzea eta nork bere buruaz beste egitea ere gertatu daitezke^{144,145}. Gizarte-maila edo estatusa galtzeak eta autostimua galtzeak zerikusia dute depresioarekin. Horrek estres-mekanismoak eragin ditzake eta gaixotasunak izateko arriskua areagotu; adibidez, kardiopatia koronarioa izateko¹⁴⁶.
- Etxetik gertuko lana izateak ongizatean eta osasunean izan ditzaken eraginei dakogienez⁷³, hauxe iradoki da:
 - Litekeena da tokiko ekonomia eta bertakoen ongizatea hobetzea.
 - Pretsonei, beraien lan-bizitza eta familia-bizitza modu malguagoan gobernatzen laguntzen die; beraz, familia- eta lan-gatazkak izateko aukera murriztu egiten da.
 - Lantokia gertu izateak oinez eta bizikletaz ibiltzeko gogoia pizten du. Halaber, joan-etorri loturiko estresa arintzen du.
 - Lantokia gertu ez izateak modu negatiboan eragin dezake maila indibidualean nahiz komunitate mailan. Buru-osasunari eta familia-bizitzari erasango lioke, eta sare sozialei modu negatiboan eragingo, gizarte-elkarrekintzarako denbora gutxiago edukitzeagatik¹⁴⁷.
 - Bizitoki- eta industria-guneak eremu berean egoteak modu negatiboan eragin diezaike populazioari, egoten den zarategatik eta atmosferako kutsaduragatik. Bi kutsadura mota horiek errepideko zirkulazioa ugartzeagatik eta pertsona eta salgaien garraioagatik sor daitezke, edota lantokian bertan sortutakoak izan.
 - Industria-jarduerek tokiaren irudi ez oso erakarria sor dezakete, eta horrek, alde batetik, maila sozioekonomiko hobeko egoiliar berriak uxatu ditzake, eta, bestetik, sozioekonomikoki dirudunenak irtenarazi.
- La Organización Mundial de la Salud identifica varias vías por las que el empleo impacta positivamente en la salud mental^{138,139}. El empleo protege la salud mental. Las personas desempleadas tienen niveles más bajos de bienestar psicológico que incluyen desde síntomas de depresión y ansiedad a la autolesión y suicidio^{144,145}. La pérdida de «posición» o estatus y la pérdida de la autoestima están relacionados con la depresión. Esto puede activar mecanismos de estrés que incrementan el riesgo de enfermedades como la cardiopatía coronaria¹⁴⁶.
- En relación a los efectos sobre el bienestar y la salud que se pueden derivar de la proximidad del empleo al domicilio⁷³, se ha sugerido:
 - Es probable que mejore la economía local y el bienestar de los residentes locales.
 - Permite a las personas manejar su vida laboral y familiar con mayor flexibilidad y por tanto reduce la probabilidad de conflictos familiares y laborales.
 - La menor distancia al trabajo anima a caminar más y a un mayor uso de la bicicleta. Asimismo, reduce el estrés relacionado con los desplazamientos.
 - La no cercanía al trabajo puede generar un impacto negativo a nivel individual y a nivel de la comunidad. Afectaría a la salud mental, a la vida familiar y repercutiría negativamente a las redes sociales al disponerse de menos tiempo para dedicarlo a la interrelación social¹⁴⁷.
 - La coexistencia en una misma área de zonas residenciales e industriales puede afectar negativamente a la población a través del ruido y la contaminación atmosférica. Ambos tipos de contaminación pueden ser producidos a través del aumento del tráfico por carretera, el transporte de personas y mercancías y el generado en las propias áreas de trabajo.
 - Las actividades industriales pueden generar una imagen de la localidad poco atractiva, lo que podría, por un lado, desincentivar la afluencia de nuevos residentes de mejor nivel socioeconómico y, por otro lado, favorecer la salida de la población socioeconómicamente más acomodada.

6.9. Kapital soziala

Azterketa bibliografiko honetan zehar, deskribatu dugu nola eragin dezaketen eraikitako inguruen ezaugarriek komunitate bateko gizarte-kohezioan. Atal honetan, kapital/kohezio sozialaren eta osasunaren arteko lotura jasotzen da.

6.9. Capital social

A lo largo de esta revisión se ha descrito cómo las características del medio construido pueden influir en la cohesión social de una comunidad. En este apartado se recoge la asociación encontrada entre el capital/cohesión social y la salud.

- Kapital soziala honela defini daiteke: «gizarte-antolaketa baten ezaugarriak –konfiantza, arauak eta sareak, esaterako–, gizartearen eraginkortasuna hobetu dezaketenak ekinga koordinatuetan lagunduta». Egun, horren definizioaz dagoen eztabaida gorabehera, guztiek aipatzen dituzte, zuzenean edo zeharka, konexio edo sare sozialak kapital sozialaren atribututzat. Kapital sozialak konfiantza izaten laguntzen du; alegia, elkarrekintza sozial bati ekiteko gizarte-harremanetan funtsezkoa den faktorea. Kooperazioan ere laguntzen du, harreman pertsonalizatuak egiteko beharrik gabe. Ildo horretatik, kapital sozialari buruzko ikerketak, adierazle indibidualak neurtzeaz gain, gizarte-antolaketa maila altuagoak ere neurtu ditu, hots, auzoak, estatuak eta nazioak.
- Kapital sozialak sostengu afektiboa eskaintzen du, autoestimuan eta elkarrekiko errespetuan lagunduz, eta osasun fisiko nahiz mentalaren adierazleak hobetzen ditu¹⁴⁸⁻¹⁵⁵. Zehazki esanda, kapital sozialak norberaren osasuna hobea dela hautematen laguntzen du¹⁵³ eta kausa guztiek eragindako hilkortasuna gutxitzen^{156,157}.
- Kapital sozialak osasuna sustatzen du, estres-, antsietate- eta depresio-mailak jaitsita, indargetzaile moduan jarduten baitu, bizitzako gertakizun estresagarrien aurrean^{155,158-160}.
- Kapital sozialak komunitate bateko kideen osasun-portaeretan eragiten du, osasunari buruzko informazioa zabalduz edota portaera osasungarriaren aldeko arauak hartzeko aukera areagotuz. Aldi berean, kontrol soziala gauzatuko luke, jarrera ez oso osasungarrii aurrea hartuta (adibidez, tabakismoa eta indarkeria)¹⁶¹.
- Aurkikuntzek iradokitzen dutenez, gizarte-ingurua garrantzitsuago da osasunaren pertzepziorako emakumezkoetan gizonezkoetan baino; aldiz, gizonezkoetan, estatus sozioekonomikoa da garrantzitsuago osasunaren pertzepziorako¹⁶².
- Komunitate batu batek zerbitzuetara iristeko aukera gehiago eskaintzen ditu. Herrialde garatuetan, handia da asistentzia informalaren eskaera, gaixotasun iragankorrak direnean. Hutsune hori beteitzeko, mekanismo informal eta ezkutukoak sortzen dira ordezkotzat. Elkarren arteko asistentzia modu bat eratu dezake horrek, bizilagun edo lagun artean, osasun-aseguru formalaren osagarri.
- Capital social se puede definir como «las características de la organización social, tales como confianza, normas y redes que pueden mejorar la eficiencia de la sociedad facilitando acciones coordinadas». A pesar del debate actual sobre su definición, subyace en todas ellas la referencia directa ó indirecta a las conexiones sociales o redes sociales, como atributos del capital social. El capital social favorece la confianza, factor determinante de las relaciones sociales que se requiere para iniciar una interacción social; favorece también la cooperación, sin necesidad de crear relaciones personalizadas. En este sentido, la investigación sobre capital social ha medido tanto indicadores individuales como niveles más altos de organización social como barrios, estados y naciones.
- El capital social aporta soporte afectivo que favorece la autoestima y el respeto mutuo y con ello mejores indicadores de salud tanto física como mental¹⁴⁸⁻¹⁵⁵. Concretamente, el capital social mejora la salud autopercebida¹⁵³ y reduce la mortalidad por todas las causas^{156,157}.
- El capital social promueve la salud mediante la disminución de los niveles de estrés, de ansiedad y de depresión ya que actúa como un amortiguador frente a los acontecimientos vitales estresantes^{155,158-160}.
- El capital social influye en las conductas saludables de los miembros de una comunidad promoviendo la difusión de la información respecto a la salud o incrementando la probabilidad de que normas de comportamiento saludable sean adoptadas. A su vez, ejercería un control social previniendo las conductas poco saludables (por ejemplo el tabaquismo y la violencia)¹⁶¹.
- Los hallazgos sugieren que el entorno social es más importante para la percepción de la salud en la mujer que en el hombre, mientras que el estatus socioeconómico es más importante para la percepción de la salud en el hombre¹⁶².
- Una comunidad unida favorece un mayor acceso a los servicios. En los países desarrollados existe una importante demanda de asistencia informal en caso de enfermedad temporal. Para cubrir este vacío los mecanismos informales y tácitos surgen como un sustituto. Esto podría tomar la forma de asistencia recíproca entre vecinos/as o amigos/as para complementar el seguro de salud formal.

26. Irudia. Arrain-lonja berriaren eta La Herrera I/M-ren (Pasaia) esku-hartzeek osasunean luketen eragina
 Figura 26. Efectos en la salud de la intervención de la nueva lonja de pescado y de La Herrera N/O

Eragindako determinatzaileak Determinantes afectados	Osasunaren gaineko emaitzak Resultados en salud	Erasana Impacto
Hiri-namiadura	<ul style="list-style-type: none"> ↑ buruko osasuna eta ongizatea⁵² ↑ antsietatea, depresioa eta osasun kaxkarra⁵³⁻⁵⁵ ↑ osasun fisiko txarragoa hautematea⁵⁶ ↑ loaren kalitate txarragoa⁵⁷ <ul style="list-style-type: none"> • arriskuzko portaerak⁵⁹ • hipertentsioa igotzea, intsulinarekiko erresistentzia, funtzio immunearen eta gosea erregulatzen duten hormonen alterazioa⁶⁰ ↑ jardura fisikorik eza⁶² ↑ dieta-kalitate txarragoa⁶² ↑ obesitatea ugaritzea (giro obesogenikoak)⁶² ↑ II motako diabetesa eta hipertentsioa⁶³ 	<ul style="list-style-type: none"> - - - - - - - -
Deterioro urbano	<ul style="list-style-type: none"> ↓ salud mental y bienestar⁵² ↑ ansiedad, depresión y salud pobre⁵³⁻⁵⁵ ↑ peor percepción de salud física⁵⁶ ↑ peor calidad del sueño⁵⁷: <ul style="list-style-type: none"> • conductas de riesgo⁵⁹ • aumento de la hipertensión, resistencia a la insulina, alteración de la función inmune y de las hormonas que regulan el apetito⁶⁰ ↑ inactividad física⁶² ↑ peor calidad de la dieta⁶² ↑ incremento de la obesidad (ambientes obesogénicos)⁶² ↑ diabetes tipo II e hipertensión⁶³ 	<ul style="list-style-type: none"> - - - - - - - -
Ingurune osasun-garriak eta berronerketa	<ul style="list-style-type: none"> ↑ osasuna eta ongizatea⁶⁵ ↑ jardura fisikoa⁶⁵ ↑ komunitate-sena⁶⁸ 	<ul style="list-style-type: none"> + + +
Entornos saludables y regeneración	<ul style="list-style-type: none"> ↑ salud y bienestar⁶⁵ ↑ actividad física⁶⁵ ↑ sentido de la comunidad⁶⁸ 	<ul style="list-style-type: none"> + + +
Hiriko berdegune ondo zainduak	<ul style="list-style-type: none"> ↑ osasun fisikoa eta mentala^{74,75} ↑ jardura fisiko handiago (txikiagotu egiten du bihotz-hodietako gaixotasun eta minbizi-mota batzuk izateko arriskua, hezur-giharretako osasuna hobetzen du, depresio-sintomak txikiagotzen ditu)^{66,78} ↓ obesitate gutxiago⁷⁹ ↓ estres eta nekaldi gutxiago⁸⁰ ↑ buruko ongizatea⁷⁶ ↑ aire-kalitatea hobetzea⁸⁵ 	<ul style="list-style-type: none"> + + + + + +

.../...

Eragindako determinatzaileak Determinantes afectados	Osasunaren gaineko emaitzak Resultados en salud	Erasana Impacto
Espacios verdes urbanos bien mantenidos	<ul style="list-style-type: none"> ▲ salud física y mental^{74,75} ▲ mayor actividad física^{76,77} (reduce el riesgo de enfermedades cardiovasculares, de algunos tipos de cáncer, mejora la salud músculo-esquelética, reduce los síntomas de depresión)^{66,78} ▼ menor obesidad^{77, 79} ▼ menor estrés y fatiga⁸⁰ ▲ bienestar mental⁷⁶ ▲ mejora la calidad del aire⁸⁵ 	<ul style="list-style-type: none"> + + + + + +
Zoruaren erabilera mistoa	<ul style="list-style-type: none"> ▲ jarduera fisiko handiago^{87,88} ▲ kohesio sozial handiago⁸⁹: estres txikiago eta buru-osasunak eta ongizateak hobera⁹³ ▼ gorputz-masaren indize (obesitatea)⁹¹ txikiago ▼ aire-kutsadura txikiago⁹⁵ 	<ul style="list-style-type: none"> + ++
Uso mixto del suelo	<ul style="list-style-type: none"> ▲ mayor actividad física^{87,88} ▲ mayor cohesión social⁸⁹: menos estrés y mejora de la salud mental y bienestar⁹³ ▼ menor índice de masa corporal (obesidad)⁹¹ ▼ reducción de la contaminación del aire⁹⁵ 	<ul style="list-style-type: none"> + + + +
